IRITZIA: AUTORIK GABEKO EGUNAREN GAINEAN EZTABAIDAKA /9

# Goienkaria

EGUBAKOITZA • 2003ko urriaren 3a • IV. urtea
125. zenbakia • DOAN BANATZEKOA



BARRUAN, ZURE HERRIKO ALDIZKARIA




**KANDIDO EIZAGIRRE / AGIFES**
*"Gaixo psikiko bat bizi den etxea ospitale psikiatrikoa da"* /7

**KIROLAK**
Aramaioko II. Rallysprinta urriaren 11 jokatuko da /10

**Goienka2a**
Euskal Herri osoko idazleak, UNEDeko Idazle Eskolan

## Abenduan ireki nahi dute Eibar-Gasteiz autobideko lehen zatia

Hasiera baten, Diputazioko arduradunen asmoa zen iazko abendurako zabaltzea Eibar eta Bergara arteko zatia; baina, hainbat atzerapenen ondoren, azkenean, aurtengo abenduan zabalduko dute Eibar-Gasteiz autobidearen zati hori. Horixe azaldu berri dute Diputazioko arduradunek.

Atzerapenen arrazoi nagusia izan da Larreategiko eskumako zubibidean, Soraluzen, urtarrilean gertatutako istripua. Hiru pieza handi erori eta zubibidetik zintzilik geratu ziren. Ordutik hona geldi egon dira lanak zubibide horretan; hainbat azterketa egin dituzte zer egin erabakitzeko eta, azkenean, oraingo astean erabaki dute zubibidea ez dutela botako berria eraikitzeko.

Abenduan zabalduko duten Eibar eta Bergara arteko zatiak 7,6 kilometro izango ditu. /4

**DEBAGOIENA**

### Etxebizitzaren prezioa %17 igo da azken urtean

Etxebizitzaren prezioa %17, 9 igo da ibarrean. Estatuko Sustapen Ministerioaren datuen arabera, bestalde, etxebizitza berriaren prezioa %20,78 igo da EAEn. Iazko uztailean metro koadroaren batezbesteko prezioa 2.140 eurokoa zen; aurtengo uztailean, berriz, 2.524 eurokoa. 1999 eta 2000 artean, bestalde, %40koa izan zen igoera, sekula izan den handiena. /4

**BERGARA**

### Torunsako behargin bat atxilotu du Ertzaintzak

Eguaztenean, eguenean eta gaur, egubakoitza, greba egin dute Bergarako Torunsako langileek. Eguazten goizeko lehen orduan langile bat atxilotu zuen Ertzaintzak. Torunsako langileak, langileen ordezkariak eta herriko beste lantegi batzuetako ordezkariak Torunsa aurrean elkarretaratuta zeudela gertatu zen atxiloketa. 14:00ak aldera, baina, aske laga zuten. /6

**ASTEKO GAIA: DEBAGOIENDARRAK, ZERBITZU HOBE ESKE /2-3**

# Garraio publikoaren sarea askatu nahian


IRATI AGIRREAZALDEGI
Autobusak maizago ibili behar direla eskatzen dute hainbat herritarrek.

Bergarako, Elgetako eta Antzuolako herritarrek garraio publiko egokiagoa eskatzeko ekimenak jarri dituzte abian. Gabezia asko ikusten dizkiote gaur egungo zerbitzuari: lanera, jaietara, ospitalera... joateko autobusen premia; ibarreko herri txikien eta handiagoen arteko konexio hobeen falta... Kexu horiek ibar osoko herrietan entzuten direnen oihartzun dira.

Foru Aldundiak du lurraldeko garraio publikoa antolatzeko ardura, eta ordezkariek onartzen dute Debagoiena "ez dagoela ondo zerbitzatuta". Edozelan ere, irtenbideak luze joko duela ematen du. /2-3

- *Mankomunitateak lehentasuna eman dio garraioaren arazoari*
- *Garraio publikoa hobetzeko azterketa egiten dabil Aldundia*

**ARRASATE**

### Loteria Nazionalak sari nagusia utzi du: 1.200.000 euro

Joan den zapatuko zozketan, Arrasaten saldutako 51.788 zenbakia atera zen garaile Loteria Nazionalaren zozketan. 1.200.000 euroko saria egokitu zitzaion zenbakiari. Eta zenbaki horren 20 dezimo saldu zituen Ruiz de Alegria administrazioak. Hala, saridun bakoitzak 60.000 euro poltsikoratuko ditu 6 euroko txarteleko. /6







DEBAGOIENA/4 • HERRIZ HERRI/6 • IRITZIA/8-9 • KIROLA/10 • NON-ZER/16-17 • SAILKATUAK/18 • BERRI-ZAKUA/19 • ZERBITZUAK/20 • DENBORA-PASA/21

# Debagoieneko garraio publ

- Autobus zerbitzu hobea eskatzen dute herritar askok
- Aldundian kexua aurkeztu berri dute 700 bergararrek
- Elgeta eta Antzuolan ere herri ekimenak bultzatu dituzte protesta egiteko




L.L.

Autobusa da Debagoieneko garraio publiko mota bakarra, eta erabiltzaileek kexu asko dituzte.

LEIRE KORTABARRIA

Bilbora joateko, lehenengo, Elgetatik Bergarara joan beharra; han, itxaroten denbora bat eman ondoren, Arrasatera joatea; eta handik Bilbora doan autobusa hartzea. Edo Oñatitik Bilbora joateko, 9:15eko autobusa hartzerik ez badago, 18:15ak arte itxaron beharra. Edo Antzuolatik Bergarara, lan kontu edo erosketagatik joan nahi, eta, dauden zerbitzuak eskola-umeen ordutegirako egokituta daudelako, azkenean, auto-stop egin beharra, askori gertatzen zaien moduan… Horiek dira debagoiendarrek alde batetik bestera –ibarrean bertan edo ibarretik kanpoko hiri garrantzitsuenetara– garraio publikoz ibili nahi izanez gero bizitzen dituzten hainbat egoera.

Askotan entzun izan da Debagoiena, komunikabideei dagokienez, egoera anakronikoan dagoela; eta, mota horretako esperientziez gogait eginda, hainbat herritarrek zerbait egitea erabaki dute. Gauzak aldatzea lortuko duten ez dago jakiterik, baina euren kexua plazaratu gabe ez dira geratu.

### OSPITALERA EZIN JOAN

Ibarrean, garraio publiko bakarra autobusa da, trena kendu zutenetik, eta tranbiaren zain gauden bitartean. Itxoite epe hori luzeegia iruditzen zaie gutun bat Diputaziora bidali berri duten 700 bat bergararri. Euren protestak entzunda, argi geratzen da komunikazio falta handia dagoela, ez bakarrik ibarreko herri txikienetatik derrigorrez lotura behar duten herri handiagoetara-Antzuola eta Elgeta Bergararekin-, edo Oñatiren kasu deigarrian; baita Arrasate edo Bergararen kasuan ere. "Gutxieneko neurria eta benetako zerbitzua ematen duen garraio sarerik ez dago. Nik arazo handiak izaten ditut Arrasateko ospitalera joateko, edo debagoiendarrok Gasteizeko ospitaleren batera bidaltzen gaituztenean", dio Lali Tartas bergarararrak.

Hondartza eta Euskal Herriko aisialdi lekuetara, edo herri batetik bestera lanera joateko, edo gazteendako behar bezainbat gau-autobus zerbitzu falta dagoela salatzen dute bergarar horiek, beste hainbat debagoiendarrek bezala. Era berean, tarifa merkeagoak eskatzen dituzte: adibidez, Eusko Tren autobusetan, erretiratuek 0,35 euroko tarifa berezia dutela aipatzen dute.

### EGOERA LARRIENAK

Ibarreko beste herri batzuen kasua, ordea, oraindik okerragoa da. Esate baterako, Oñatitik Bilbora, Donostiara edo Gasteizera joatea ia ezinezko gertatzen da autorik ez edukiz gero. Bilbora bakarrik dago konexio zuzena autobusez; beste guztietarako, lehenengo Arrasatera edo Bergarara joan beharra dago, eta, hainbat kasutan, han gehiago edo gutxiago itxaron. Hori arazo bihurtzen da hiri horietara lanera joan beharra badago.

Eta zer esanik ez Debagoieneko herri txikiagoen egoeraz. Elgetak eta Antzuolak, batez ere, lotura eta neurri bateko mendetasuna dute Bergararekiko, eta herritarrak ez daude konforme

**Masterra kudeaketa integralean eta kalitate, ingurumen eta prebentzio auditorietan**

Laneko arriskuak prebenitzeko erdi mailako teknikari titulazioa lortzen da.

**Programaren edukia**
- Kalitatea eta bikaintasuna gestioan.
- Ingurumen gestioa eta teknologia.
- Lan arriskuak prebenitzea. (PRL erdi mailako tekniko titulazioa)
- Gestioan sistema integratua.
- Antzeko teknikak : HHPP, auditoriak, ekonomikoa-finantzarioa…

| | |
|---|---|
| **Lekua:** | Gasteiz |
| **Iraupena:** | 650 ordu (400 ordu eskolan bertan) |
| **Noiz:** | 2003ko urritik 2004ko uztailera arte |
| **Ordutegia:** | Astelehenetik eguenera, 19:00etatik 22:00etara. |
| **Nori zuzendua:** | profesionalei eta tituludun berriei. |

Mutua La Previsora-ren barruan dauden enpresen profesionalek %10eko deskontua izango dute.

LAN-POLTSA ETA ENPRESETAN PRAKTIKAK EGITEKO AUKERA.

ANTOLATZAILEA: DESLAN FORMACIÓN
LAGUNTZAILEA: La Previsora, Mutua La Previsora

**Informazioa eta inskripzioak:**
17:00etatik 20:00etara. Frantzia kalea 21, 1. ezk. A6 bulegoa Tel.: 945 253 405 GASTEIZ
E-posta: deslanformacion@deslanformacion.com / Web orria: www.deslanformacion.com

## PESA AUTOBUS ENPRESAK EMATEN DU ZERBITZUA, KONTZESIO BIDEZ

### Aldundiak gizartearen premiak aztertu eta enpresari bideratzen dizkio

**Ibarrarendako garraio publiko zerbitzua aipatzen denean, begi guztiak, nahi eta nahi ez, PESA autobus enpresari begira jartzen dira. Alejandro Naya PESA enpresako arduradunak hainbat azalpen eman dizkigu, argi utziaz irtenbide bat bilatzea ez dela bakar baten kontua. "Zerbitzu jakin bat behar den edo ez erabakitzeko, Aldundiak azterketa batzuk egiten ditu. Horietan, udalekin, eskualdeetako erakundeekin eta, noski, herritarrekin egiten da berba. Gehienetan, gizartean irrika edo premia bat badago, Debagoienaren kasuan bezala, eta Aldundiak hala sumatzen badu, errazagoa da horrek egoera aldatzen laguntzea", diosku. Aldundiak ematen ditu lurraldean garraio zerbitzua emateko kontzesioak, eta, Nayaren esanetan, Aldundiak planteatzen dizkie zerbitzua ematen duten enpresei zeintzuk diren beharrak eta baldintzak.**

**PESA enpresa pribatua da, eta, alde horretatik, muga batzuk ditu. Antzuola eta Elgetaren kasua da horren adibide bat: PESAk ezin du autobus eta gidari bana konprometitu herri bakoitza Bergararekin lotzeko, behar den maiztasunarekin; hortaz, alkateek planteatzen duten irtenbide posible bat da ibilbide osoa egingo duen autobus eta gidari bakarra erabiltzea.**

# ikoaren sare korapilatsua

## LALI TARTAS / AUTOBUS ERABILTZAILEA

### *"Oraingo maiztasuna ez da nahikoa"*



**Beste 700 bergararrekin batera, autobus zerbitzu hobea eskatzeko gutuna izenpetu du Lali Tartasek.**

**Zer eskatzen duzue?**

Honakoendako autobusak: lanera doazenendako, herrietako jaietara doazen gazteendako, hondartzara eta urtegietara, eta ospitalera joateko… autobusak. Gainera, erretiratuondako tarifa bereziak ere eskatzen ditugu. Horrez gain, Gasteizekin konexio hobea ere nahi dugu; dauzkagun zerbitzu eskasen arabera, batek esango luke Gasteiz ez dagoela Euskal Herrian ere! Autobusen oraingo maiztasuna ez da nahikoa: batzuetan, ordubete itxoin behar da autobus baten eta beste baten artean, edo luzeago.

**Beste proposamenik baduzue?**

Trenaz eta tranbiaz asko hitz egiten da, baina horretarako oraindik asko falta dela uste dugu; erretiratuondako, behintzat, ez da garaiz etorriko proiektu hori! Eusko Tren-ek eskaintzen duen zerbitzu antzekoa nahiko genuke; hor, erretiratuek 0,35 euro ordaintzen dute.

## KOTE OLAIZOLA / FORU ALDUNDIA

### *"Urte bukaeran gertu egongo da txostena"*



**Foru Aldundiak dauka garraio publikoaren ardura. Kote Olaizola da Lur eta Garraio saileko zuzendaria.**

**Debagoiendarren kexuen aurrean, zer dio Foru Aldundiak?**

Badakigu arazo bat dagoela, eta Debagoieneko egoera oso konplikatua dela, baina irtenbidea ez da erraza. Alde batetik, zerbitzu hori eskaintzen duten enpresek euren errentagarritasuna bilatu behar dute; eta ibarreko lizentziak 2012an begiratuko dira… Neurri zuzentzaileak behar dira, baina planteamendu orokor bat behar da, herritarrak eta enpresak kontuan hartuko dituena. Ez da prezioak merkatu edo ordutegiak aldatzearekin bukatzen den kontua.

**Neurriren bat aurreikusten duzue?**

Enpresen tarifak aztertzea eta zerbitzu desberdinak zelan koordinatzen diren ikustea da lehen urrats bat, eta horretan gaude; izan ere, urte bukaerarako txosten hori eginda izatea espero dugu. Orduan hasi ahal izango gara elkarrizketetan enpresekin, erakundeekin…

## IGNAZIO LAKUNTZA / MANKOMUNITATEA

### *"Gaur egungo legedia aztertu behar da"*



**Ignazio Lakuntza da Mankomunitateko presidente berria, eta erakundearen jarrera azaldu digu.**

**Zer egin dezake Mankomunitateak garraioaren arazoa konpontzeko?**

Junta berriak aste honetan egin du lehen bilera, eta gai hori mahai gainean dago. Lehenengo hausnarketa estrategiko bat egingo du Mankomunitateak. Garraio publikoaren arazoa da premia handienetako bat. Egoera kaotiko honi irtenbideak bilatu behar dizkiogula argi dago.

**Zein pauso eman ditzakezue epe laburrean?**

Hainbat garraio proiektu dago abian; tartean, ibarreko tranbiarena, baina ikusi egin behar hori noiz eta zelan egiten den; momentu honetan, autobusa da ibarrak duen garraio publiko mota bakarra, eta epe laburrean hortik jo behar da. Debagoiena *hiri* bihurtu behar bada, Aldundiak dioen bezala, oraingo legeak aztertu eta helburu horretarako aurkezten dituzten oztopoak gainditu behar dira: besteak beste, kontzesio administratiboena.

---

dituzten garraio publiko aukerekin. Hori ikusita, Elgetako herritar talde batek gogoeta bultzatzea erabaki du. Egunotan banatuko dituzte hainbat eskuorri herritarren artean, eta euren helburua da, bergararrek egin duten bezala, euren ahotsa Diputaziora helaraztea. Elgetako eta Antzuolako udalek bat egitea erabaki dute.

Herri hauetako alkateak badabiltza PESA autobus presarekin eta erakundeekin elkarrizketan, izan ere, "erakundeek amets asko dituzte, baina guk premia bat dugu, eta erantzun bat behar dugu".

**IRTENBIDE BILA**

Konponbideei dagokienez, herritarrek badituzte euren ereduak. Bergarako taldeak, adibidez, Eusko Tren enpresa publikoak eskaintzen duen autobus zerbitzua hemen ere ezartzea nahiko luke. Trenaren komenigarritasuna ere aipatzen dute -ez bakarrik oso sarri direlako, baizik eta prezioak ere ibarreko autobusenak baino merkeagoak direlako, eta ez da ahaztu behar ibarreko tranbiaren proiektua -baina epe motzeko irtenbide bakarra autobus sarea hobetzea da.

Diputazioa, bestalde, hasia da Gipuzkoa osoko garraio publiko sarea aztertzen -urte bukaerarako, tarifen gaineko azterketa bukatuta egotea espero dute. Kote Olaizola Lur eta Garraio saileko buruak esan duenez, "lurralde osoa hiri bihurtzea, eta garraio publikoa berrantolatzea" nahi da. Gipuzkoar guztiak dira kexu garraio publikoaz: Gipuzkoan, autoaren erabilera maila %76koa da, garraio publikoaren alboan.

Konponbideak luze joko duela argi dago. Elementu asko dago jokoan -kontzesio sistema, enpresen interesa, erabiltzaileen ohiturak…- eta guztiak aldatu behar dira egoera konpontzeko.

*Foru Aldundia dabil garraio publikoaren egoeraren gaineko txosten bat prestatzen*

*Herritarrak eta erakundeak bat datoz esaten autobus sarea hobetzea dela irtenbide bakarra*

*Gipuzkoa osoan garraio publikoa gutxi erabiltzen da: %24, autoaren alboan*

LASAGABASTER
LASAGABASTER
www.lasagabaster.com
Zerkaosteta, 1 eta 2 • ARRASATE • Tel.: 943 79 27 27 / 943 79 13 55



ARTXIBOA

Urtarrilean Larreategiko zubibidean gertatutako istripua izan da atzerapenaren arrazoi nagusia.

# Etxebizitzaren prezioa %17 igo da azken urtebetean ibarrean

*Orain dela hiru urteko igoera handiagoa izan zen*

A.I.

**Deba Garaia etxe agentziak eman du aditzera datu hori: etxebizitzaren prezioa %17, 9 igo dela ibarrean. Estatuko Sustapen Ministerioaren datuen arabera, bestalde, etxebizitza berriaren prezioa %20,78 igo da EAEn.**

2002ko uztaila eta 2003ko uztaila bitartean %17,9 igo da etxebizitzen prezioa Debagoienean, Deba Garaia etxe agentziak oraingo astean aditzera eman dituen datuen arabera. Iazko uztailean metro koadroaren batez besteko prezioa 2.140 eurokoa zen; aurtengo uztailean, berriz, 2.524 eurokoa. Azkeneko igoera hori handia izan den arren, 1999 eta 2000 artean gertatu zena baino dezente baxuagoa izan da; orduan %40koa izan zen igoera, sekula izan den handiena.

Espainiako Estatuko Sustapen Ministerioak ere etxebizitzen prezioaren gaineko hainbat datu jakinarazi zituen aurreko astean. Ministerio horren arabera, Euskal Autonomia Erkidegoan %20,78 igo da etxebizitza berrien prezioa. Estatuko igoera handienetakoa izan da hori; Madrilgo Autonomia Erkidegoan bakarrik izan da handiagoa igoera: %30,46 garestitu dira prezioak han.

Gauzak horrela, etxebizitza berrien metro koadroaren batez besteko prezioa 2.106 eurokoa da gaur egun Euskal Autonomia Erkidegoan.

# Eibar-Gasteiz autobidearen lehen zatia abenduan zabalduko dute

*Soraluzeko Larreategiko zubibidea, istripua gertatu zena, ez dute botako*

AINTZANE IRIZAR

**Hasiera baten, Diputazioko arduradunen asmoa zen iazko abendurako zabaltzea Eibar eta Bergara arteko zatia; baina, hainbat atzerapenen ondoren, azkenean, aurtengo abenduan zabalduko dute Eibar-Gasteiz autobidearen zati hori.**

Horixe azaldu berri dute Diputazioko arduradunek. Esan bezala, hasiera bateko asmoa zen 2002ko abenduan zabaltzea Eibartik Bergararainoko zatia, baina ezin izan zuten epe hori bete; orduan adierazi zuten 2003ko apirilean zabalduko zutela, baina, epe hori ere atzeratu beharra izan zuten; ekainean, berriz, hilabete honetan, urrian, alegia, zabalduko zutela iragarri zuten, eta azkenean, abenduan zabalduko dute.

Atzerapenen arrazoi nagusia izan da Larreategiko eskumako zubibidean, Soraluzen, urtarrilean gertatutako istripua. Hiru pieza handi erori eta zubibidetik zintzilik geratu ziren.

**ZUBIBIDEA EZ DUTE ERAITSIKO**

Istripuaren ondorioz Larreategiko zubibidea eraitsi eta berriro eraiki beharko zutela ere zabaldu zen, baina ez dute horrelakorik egingo.

Teknikoak denbora luzez ibili dira ezkerreko zubibidean izandako eraginak aztertzen, badaezpada; egunotan, zubibide hori indartzeko lanak amaitzen dihardute. Istripua gertatu zen zubibideari dagokionez, horren egitura ere indartu egin beharko dute; datozen egunotan hasiko dira lanokin. Lan hauek, baina, luzerako joko dute eta zubibide hori ez dute zabalduko 2004ko udazkenera arte. Horrela, ezkerreko zubibidea bakarrik zabaldu ahal izango dute hasieran, eta bi norabidetakoa izango da.

**EAE-KO TUNEL LUZEENA**

Abenduan zabalduko duten Eibar eta Bergara arteko zatiak 7,6 kilometro izango ditu eta zati horretan egongo da EAEko tunel luzeena: Gallastegikoa, hain zuzen ere, 2.370 metrokoa.

Autobidearen gainerako zatiei dagokienez, Ondartzatik Zaldumendirakoa, Bergaran, 2004ko udan zabaltzea espero dute; Zaldumendi eta Arrasateko artekoa urtebete geroago; Arrasatetik Arabako mugarainokoa, berriz, 2006. urtea amaitu aurretik. Arabako zatiari ere 2006an amaitzea espero du Arabako Diputazioak.

*Larreategiko zubibide bakarra zabalduko dute abenduan, bi noranzkorekin*

**ARABAKO ZATIA BANKETXEEK FINANTZATZEA NAHI DU DIPUTAZIOAK**

Eibar-Gasteiz autobidearen Arabako zatia banketxeek finantzatzea nahi du Arabako Diputazioak. Finantzaketa hori lehiaketara ateratzeko baldintza plegua prestatzen dihardu.

Arabako zatiak 130 milioi euroko aurrekontua dauka, eta Diputazioaren nahia da 100 milioi banketxeek finantzatzea. Kreditu hori 35 urtetan itzuliko lioke Diputazioak banketxeari. Herri Lan Saileko diputatu Rodolfo Saenz de Ugartek adierazi du Caja Vital Kutxak proiektu honetan parte hartzea espero dutela.

Azkenik, aipatzekoa da ordainsaria bera izango dela Araban eta Gipuzkoan: turismoek kilometroko 0,08 euro ordaindu beharko dute. Eibartik Gasteizeraino joateko, guztira, lau euro ordaindu beharko ditugu.

# Bergarako UNED ikastetxeak ikasturte berria aurkeztu du

*Astelehenean egin zuten aurkezpen ekitaldia Donostian*

A.I.

Donostiako Koldo Mitxelena kulturunean egin zuen 2003-2004 ikasturte berriaren aurkezpena Bergarako UNED ikastetxeak. Juanjo Alvarez zuzendariak egin zuen aurkezpena, eta berarekin egon ziren ikasketa ezberdinetako arduradunak ere.

Hastera doan ikasturteko berritasunen artean, Gizarte eta Kultura Antropologiako lizentziatura dugu. Bestalde, aipatzekoa da Filosofiako lizentziaturan plan berria ezarri dutela.

Bestalde, aurkezpenean azaldu zutenez, tutoretza telematikoen eskaintza zabalagoa izango da aurtengo ikasturtean.

Azkenik, matrikula epea azaroaren 14ra arte zabalik dagoela adierazi zuten Bergarako UNED zentroko arduradunek.

## DEBAGOIENEAN LABUR

### Bergarako Torunsa enpresako langileek beste hiru greba egun egin dituzte oraingo astean

Aurreko astean iragarri zuten moduan, eguaztenean, eguenean eta gaur, egubakoitza, greba egin dute Torunsako langileek. Eguazten goizeko lehen orduan langile bat atxilotu zuen Ertzaintzak. Torunsako langileak, langileen ordezkariak eta herriko beste lantegi batzuetako ordezkariak Torunsa aurrean elkarretaratuta zeudela gertatu zen atxiloketa. 14:00ak aldera, baina, aske laga zuten. Gogoratu behar dugu Torunsako langileak greban egoteko arrazoia Lan Hitzarmena dela. Martitzenean batzarra egin zuten langileen ordezkariek eta zuzendaritzak, baina ez zuten adostasunik lortu.

SAIOA
AEROBIKA . BODY POWER . STRETCHING . DANTZA MODERNOA . GIMNASIA ZUZENGARRIA . FITNESS . MUSKULAZIOA . KARATEA . DEFENTSA PERTSONALA . MASAJE ZERBITZUA . SOLARIUMA . .DIETETIKA AHOLKULARITZA . ESTETIKA . SAUNA
Urriaren 1etik 15era. MATRIKULA DOAN!!!
Astelehenetik egubakoitzera: 06:30 –22:00 Zapatuetan: 11:00 – 14:00
Kontzezino kalea (tunelean). ARRASATE. Tel.: 943 79 97 31. gimnsaioa@euskalnet.net

BETI ONA
SPINNING . AEROBIKA . BODY POWER . STRETCHING . MUSKULAZIOA . FITNESS . GIMNASIA . KARATEA . WIN CHUNG . BOXEOA . SAUNA . DIETETIKA AHOLKULARITZA . ERREHABILITAZIOA . ZUTIKAKO ETA ETZANDAKO SOLARIUMAK
Urriaren 1etik 15era. MATRIKULA DOAN!!!
Astelehenetik egubakoitzera: 09:30 –22:00 Zapatuetan: 10:00 – 13:00
Uribarri etorbidea 12. ARRASATE. Tel.: 943 77 00 67. gimnsaioa@euskalnet.net

koma,
Erraz ikasten duzun zure hizkuntza akademia
IKASTARO BERRIAK URTE OSOAN
Ingelesa, frantsesa, alemana, italiera...
Apunta zaitez, ORAIN!
Umeei bereziki zuzendutako ekintza-programa

Olakua 7 behea • 20560 OÑATI
943 71 82 08 • Posta-e: cursos@komalingua.com • www.komalingua.com

ELKARRIZKETA/PRESOEN EGOERA

**AGUSTIN LETONA** / ENRIKE LETONA PRESOAREN ANAIA

# *“Enrikeren alde lan egiteko bilgune bat sortzen dihardugu herrian”*

AINTZANE IRIZAR

**Maiatzean aske geratu zen Enrike, 30 urteko kartzela zigorra bete ondoren; uztaileko azkeneko egunean berriro atxilotu zuten, eta Valdemoroko kartzelan dago gaur egun, isolamenduan. Agustin anaiarekin egin dugu berba, azken berriak jakiteko.**



UBANE MADERA

**Agustin, Enrike Letona Etxera bilguneko kidea eta Enrikeren anaia.**

**Ze egoeratan dago momentu honetan Enrike?**

Esan digunez, pertsonalki, gogor dago; berak esaten digu uste duela egoera hau ezin dela luzerako izan. Eskaera bat ere egiten digu senitartekooi: mugitzeko eta egoera hau gizarteari azaltzeko, jendea ohartu dadin berarekin zer egiten dihardunten.

Bestalde, aipatzekoa da kartzelan ze egoeratan dagoen, isolamenduan dago: ziega baten bera bakarrik dago, ez dauka inorekin harremanik, eta egunean lau orduz bakarrik egoten da patioan. Patioa, gainera, oso txikia da; esan daiteke, ziega handi bat dela.

**Juridikoki, zein da bere egoera gaur egun?**

Jakingo duzuen moduan, San Inazio egunean atxilotu zuen Ertzaintzak Arrasaten bertan. Garzon epailearen aginduz atxilotu zuten. Behin-behineko kartzelaratzea erabaki zuten. Kartzelaratzeko autoa, baina, ez zuten eman hamabost egun pasatu ziren arte. Ordura arte, Soto del Realgo espetxean egon zen, eta handik Valdemorora eraman zuten; ordutik, hantxe dago, esan bezala, isolamenduan.

Kartzelaratzeko autoaren ondoren, abokatuek aske lagatzeko eskatu zuten, eta atzera bota zuten eskaera hori. Orduan, helegiteen bideari ekin zioten. Bigarren helegitea ere aurkeztu dugu dagoeneko, eta seguruena, atzera botako digute hori ere. Hori gertatzen bada, geratuko zaigun aukera bakarra izango da Auzitegi Konstituzionalera jotzea. Aipatzekoa da helegiteei erantzuteko denbora asko behar izan dutela; ez dakigu zergatik, baina prozesua asko atzeratzen dihardute.

**Ze esperantza daukazue?**

Esperantza badaukagu; lehen esaten nuen moduan, Enrikek berak ere esaten digu hau ezin dela denbora askorako izan. Enrikek ez luke kartzelan egon behar. Izan ere, Espainiako Estatuan bete daitekeen zigor handiena bete du, 1979tik 1983rako sumario bategatik; eta orain, garai hartako beste sumario bat zabaldu eta kartzelaratu egin dute. Estatuan ez dagoen bizi guztirako kartzela zigorra praktikan jartzea da hori. Juridikoki, honek guztiak ez du zentzurik; hortaz, pentsatzen duguna da mendekua dela edo erabaki politiko bat dela.

> *“Juridikoki egoera honek ez dauka zentzurik; hortaz, uste dugu mendekua edo erabaki politikoa izan dela”*

**Egoera honen aurrean, ekimenik antolatuko duzue?**

Bai; Enrike Letona Etxera izeneko bilgunea sortzen dihardugu eta hainbat ekimen antolatzeko asmoa dugu. Bilgune horretan herriko esparru guztietako elkartzea da gure helburua.

## DEBAGOIENEANLABUR

### Maritxu Kajoirako zerbitzu bereziak jarri ditu PESAk

Zapatuetan bezala, autobus zerbitzu berezia jarri du PESAk gaurko, egubakoitza. Eskoriatzatik Eibarrera –eta alderantziz– honakoa izango da ordutegia: 00:00etan, 01:30ean, 03:00etan, 04:30ean eta 06:00etan. 00:00etakoa, 03:00etakoa eta 06:00etakoa Arrasateraino bakarrik joango da. Oñatitik Eskoriatzara eta Arrasatetik Oñatirakoak ere zapatu gauetako ordutegi bera izango dute.

### Confebask-ek Euskadiko Kutxaren alde egin du

Confebask Euskadiko Kutxaren alde azaldu da, PPko Antonio Basagoitik egindako adierazpenen harira. Zera adierazi zuen Basagoitik: asmo politikoek eraginda eman ziola Jaurlaritzak Euskaldun Unibertsalaren saria Martin Ugalderi; bere esanetan, “ETArekin harremana duelako itxi zuten *Egunkaria*-ren sortzailea da Ugalde”. Gogoratu zuen Euskadiko Kutxaren laguntzarekin ematen direla sariok.

### Arrasateko Udalak presoei laguntzak ematen jarraituko du

Etxerat-ek salatu du Arrasateko Udalak kendu egin dituela presoen testuliburuendako laguntzak. Inazio Lakuntza Arrasateko alkateak, ordea, gezurtatu egin du berri hori. Zera adierazi digu Lakuntzak: Gobernu batzordeak onartu duela laguntzak ematea; bere esanetan, oraindik laguntzok ez emateko arrazoi bakarra da testuliburuen gastuen egiaztagiriak ez dituztela aurkeztu.

Txinatar jatetxea
DRAGON ORIENTAL

東方龍


Araba etorbidea 3
ARRASATE
Tel.: 943 71 25 00


IKERLEKU
PODOLOGIA ZENTROA
– Oinetako gaixotasunak
– Azterketa biomekanikoa
– Kirol podologia
Ikerleku zeharbidea BERGARA **943 76 07 84**


ARRASATE ORTOPEDIA
Maalako Errabala 31
Tel.: 943 77 20 78
Osakidetzarekin eta Lagun Arorekin hitzartua
HELBIDE BERRIA
MAALAKO ERRABALA 31
DENETIK NAGUSIENDAKO
Oinaren tratamendua ordenagailu bidez
**Pedikura ortopedikoa eta oin-osatzea**
**Oinaren azterketak:** tendinitisak, gerrialdeko minak, min zerbikalak eta bizkarreko minak antzemateko.
**Umeak:** hainbatean behin egiten diren azterketa konparatiboak, umeari egin zaion zuzentzearen jarraipena egiteko.
**Materia bigunen erabilera:** oin erreumatikoendako, diabetikoendako eta neurologikoendako.
**CAD/CAM sistema:** Plantillen fabrikazioan (berehala ematen dira).
**Neurrira eginiko oinetakoak.**
**AEBetatik inportatua.**
Bizi kalitate hobea • Guztia ordenagailuz kontrolatua

M
MEMESA SL
Industri hornidurak
943 71 24 25

OÑATI

## Oñart elkarteak Pintura Lehiaketa antolatu du, jai egitarauaren barne

Udalak antolatzen dituen pintura ikastaroen ondorioz sortu zuen herritar talde batek Oñart elkartea. Jai egitarauaren barruan, aire libreko I. Pintura Lehiaketa antolatu du aurten. Datorren asteko domekan izango da hori, urriaren 12an, hain zuzen ere. Lehiaketa horixe da aurtengo egitarauaren berritasunetako bat.

Guztira, 1.670 euro banatuko dituzte irabazleen artean. Hilaren 13tik 19ra, bestalde, parte hartu duten margolan guztien erakusketa egingo dute kultura etxean. /A.I.

ANTZUOLA

## Hirigune Historikoa Birgaitzeko Plan Berezia onartzekoak ziren

Gaur, egubakoitza, goizeko zortzietan egitekoak ziren urriko osoko bilkura. Hantxe, besteak beste, Hirigune Historikoa Birgaitzeko Plan Berezia onartzekoa zen udalbatza. Iñaki Berasategi arkitekto bergararrak egin du plan hori.

Behin udalbatzak onartuta, jendaurrean jarriko dute plana, jendeak alegazioak egin ahal izateko.

Planaren helburua da, besteak beste, alde zaharrean lanak edo berrikuntza lanak egin behar direnerako irizpideak markatzea. Arau subsidiarioen osagarri da plan hori. /A.I.

ELGETA

## Herri Irratiko 'Herriz herri' irratsaioa bihar, zapatua, Elgetatik

Bihar, urriak 4, zapatua, Herri Irratiko *Herriz herri* saioa Elgetari buruzkoa izango da. Goizeko 11:05ean hasi eta 12:35era bitartean, herriari buruzko azalpenak, Internet, agintaldi berrirako asmoak, kultura, enpresa, merkataritza, eta abar izango dituzte hizketagai. Musikari ere eskainiko diote tartetxo bat, eta herritarrek eurek ere edukiko dute berba egiteko aukera. Alberto Gorritibereak zuzenduko du eta ikasturte honetako lehenengo saioa izango da Elgetakoa. /I.A.




U.M.

ARRASATE

## Loteria Nazionalak sari nagusia utzi zuen: 1.200.000 euro

Joan den zapatuko zozketan, Arrasaten saldutako 51.788 zenbakia atera zen garaile Loteria Nazionalaren zozketan. 1.200.000 euroko saria egokitu zitzaion zenbakiari. Eta zenbaki horren 20 dezimo saldu zituen Ruiz de Alegria administrazioak. Hala, saridun bakoitzak 60.000 euro poltsikoratuko ditu 6 euroko txartela erostearen truke. Administraziokoek adierazi digutenez, badira 13 urte Loteriako sari bat ematen ez dutela. Oraingoa ikusita, baina, uste dute orain arteko zorte txarra bukatu zaiela. Hala, dagoeneko Gabonetako zozketaren zain daude, pozik eta itxaropentsu, dezimo asko salduko dutelakoan eta sariren bat emango dutelakoan. Edozelan ere, esan beharra dago horrenbesteko zorte txarra ere ez dutela, duela gutxi 3.000 euroko bi sari eman zituzten-eta Primitiboarekin. /U.M.

BERGARA

# Arazoak Paulo Elkororen aldeko kale bilkuretan, baimenduta egon arren

Aste honetan arazoak izan dituzte Paulo Elkoro presoaren alde elkarretaratzek egiteko. Ia hilabete da haren aldeko elkarretaratzeak egiten direla San Martin plazan, 19:30ean. Hasieran eguaztenenetan izaten ziren eta duela bi astetik hona egunero.

Orain arte ez da arazorik egon: antolatzailea astelehenero joan izan da Ertzaintzara, eta han aste osorako baimena sinatu izan diote.

Aste honetan ere halaxe egin du, baina martitzenean Ertzaintza azaldu zen elkarretaratzera, baimenik ez zuten aitzakian. Antolatzaileek, orduan, baimena erakutsi zuten, baina baimen hark baliorik ez zuela eta elkarretaratzea bertan behera lagatzeko agindu zuten. Hori dela eta, komisariara jo zuten antolatzaileek, baimena eskuan zutela. Gertatutakoa okerren bat izango zela esan zieten han, eta baimena goizetik egoten den buruak eman zienez, eguazten goizean bueltatzeko. Eguazten goizeko buruak baimena ondo zegoela esan eta berriz sinatu zuen. Hala ere, eguerdian telefonoz hots egin zien antolatzaileei. Haien esanetan, ertzainak esan zien arratsaldean berriz joan behar zutela komisariara, txanda horretako buruarentzat agian ez zuelako baimenak baliorik izango; arratsaldekoak hori esan zuen.

Antolatzaileek epaitegira jo dute eta han Barne Sailera jotzeko aholkatu zieten. Alkatearekin ere izan dira, gertatzen ari dena azter dezan. /M.B.

**Zertzelada**

**Aste osorako baimena sinatu zuen goizeko ertzain buruak gauza bat esan eta arratsaldekoak beste bat egiten duela diote antolatzaileek.**

LEINTZ GATZAGA

# Domekan egingo dute Gatzagako I. Mendi Bizikleta Irteera

Dorleta Txirrindulari batzordeak domekarako, hilak 5, I. Mendi Bizikleta Irteera antolatu du. 10:00etan elkartuko dira txirrindulariak Gatzagako Dorletako santutegian. 27 kilometroko ibilbidea prestatu dute batzordekideek: "Ez da ibilbide gaitza. Are gehiago, ibilbidea atsegina eta polita da", esan digu batzordekide Jon Sasiainek. Ibilaldian parte hartu gura duenak ordu erdi lehenago eman beharko du izena. Txirrindularien artean hiru urdaiazpiko, hiru gazta eta Jakion etxeko beste hiru produktu sorta zozketatuko dituzte antolatzaileek. Proba amaitu eta gero, txirrindulariendako dutxa zerbitzua egongo da herrian. /A.G.




ARTXIBOA

**Parte-hartzaileek ordu erdi lehenago eman beharko dute izena.**

ARETXABALETA

## Erretiratuek euren omenezko eguna ospatuko dute bihar kirol etxean

Herriko erretiratuek Udalak antolatzen dien bazkaria izango dute bihar, zapatua, kirol etxean. Aurten, gainera, sekula baino lagun gehiago elkartuko dira: 280 erretiratu, hain zuzen ere. Bazkaria baino lehenago meza izango dute. Gero, berriz, Ludi Berri taldearen eskutik dantzaldia egongo da. Udalak, gainera, urtero moduan, opariak zozketatuko ditu. Herriko edadetuenek ere jasoko dituzte opariok. Aurten, 98 urte dituen Ascension Remirok eta 97 beteko dituen Joaquin Barberok jasoko dituzte opari bereziak. /A.L.

ESKORIATZA

## Etxerat-ek deituta auto karabana aterako da bihar, zapatua, Lasartera

Euskal presoen sakabanaketa salatzeko hainbat ekimen antolatu ditu presoen senideek osatzen duten Etxerat taldeak. Bihar, zapatua, Lasarten elkartuko dira, eta Eskoriatzatik joateko deialdia egin dute. 15:30ean batuko dira presoen senide eta lagunak Herriko Plazan, eta automobilekin Eskoriatzan gora eta behera ibili ondoren beste herri batzuetako autoekin elkartu eta Lasarterantz egingo dute.

Astelehenean, bestalde, kale bilkura egin zuten hainbat herritarrek *Dispertsiorik ez* lelopean. /M.A.

ARAMAIO

## Santa Ana ermitako lanak hasi dituzte, bi urte pasatxoko atzerapenarekin

Bi urte pasatxo itxaroten egon eta gero, oraingo astean hasi dituzte Santa Ana ermita inguruko lanak. Hain justu, ermita ondotik pasatzen den Aramaio errekaren albo bietako harrilubetak konpondu behar dituzte. Aramaio errekako lanez gain, Gantzaga errekan ere gauza bera egingo dute aurrerago.

Atzerapen dezentereekin hasi dituzte lanok; izan ere, lanok egiteko aurreneko proiektua 1999an aurkeztu zuten. Baina hainbat arrazoirengatik lanak atzeratzen ibili dira. /U.M.

Senide batek buruko gaitza zuela eta sartu zen Kandido Eizagirre Agifes elkartean, eta gaur egun bertako presidentea da. Gipuzkoako eri psikikoak eta familiak elkartzen dituen taldea da, eta buruko arazoak dituzten pertsonak gizarteratzea eta normalizatzea du helburu. Debagoienean ere badago gaixo horiek eta familiakoak biltzeko talde bat, Agifes-ekin harremana duena.

IRATI AGIRREAZALDEGI



I.A.

# *Kandido Eizagirre*

AGIFES ELKARTEKO PRESIDENTEA

# "Gaixo psikiko bat bizi den etxebizitza bakoitza ospitale psikiatriko bihurtzen da"

AGIFES-EN HELBURUA

**"Gaixoen eta euren familiakoen bizi kalitatea hobetzea eta buruko gaitzak dituzten pertsonak gizarteratzea eta normalizatzea dira gure asmo nagusiak"**

DROGAK

**"Drogen eta pilulen kontsumoak lagundu egiten du buruko gaitzak garatzen; gero eta gehiagok garatzen dute psikosia drogak hartzeagatik"**

**Zer da Agifes?**

Buruko arazoak dituzten pertsonak eta haien senideok osatzen dugu elkartea. 1985ean sortu zen, Espainian osasun lege orokorra indarrean jarri zenean; ospitale psikiatrikoak ireki egin ziren eta bertako gaixo asko etxera joan ziren, familiarekin bizi izatera. Gainera, lege hura sartu aurretik arazo psikikoak eta psikiatrikoak zituztenek ez zeukaten laguntzarik, ordaindu ezean. Donostian guraso batzuk elkartu ziren orduan, eta denborarekin taldea Gipuzkoa osora hedatu da. Gaur egun 750 bazkide gara. Aldarrikapen tresna bat da gure elkartea. Familiek beharrezko baliabide eta azpiegiturak eskatzen dizkiote administrazioari: osasun aldekoak, Osakidetzari eta Osasun Sailari eta giza aldarrikapenak Foru Aldundiari, lan babestua lortzeko, eguneko zentroak irekitzeko eta etxebizitza babestuak egiteko.

**Zein da zuen helburu nagusia?**

Gaixoen eta familiakoen bizi kalitatea hobetzea. Izan ere, gaixo psikiko bat etxean edukitzea ez da txantxetako kontua, familia horren etxea ospitale psikiatriko bihurtzen da-eta. Beraz, buruko gaitzak dituztenak gizarteratzea eta normalizatzea ere gure helburuen artean daude.

**Zein azpiegitura dituzue?**

Donostian eguneko zentroa eta eguneko unitatea ditugu. Hernanin negutegi terapeutikoa dago, Azpeitian ere bada beste eguneko zentro bat eta aurki Eibarren irekitzekoak gara beste bat. Bestalde, babestutako sei etxebizitza dauzkagu. Azpiegitura humanorik ere ez zaigu falta. Debagoienean, esaterako, badugu presentzia, eta 30 laguneko talde batek dihardu lanean, gurekin harremanetan. Autolaguntza taldea osatzea da oinarrizkoena. Izan ere, horrelako pertsonekin bizi izaten ikasi egin behar da, eta horretarako azpiegiturak ematen ditugu.

**Ikasgai garrantzitsuena zein da?**

Gaixotasun mental larria zer den jakin behar da lehenengo. Bestalde, osasun arlotik eta gizartearen aldetik dauden babesen eta eskubideen berri izan behar da. Horrez gain, gaixoen amek (gehienetan zaintzaileak eurak dira) edo senideek pertsona horiekin bizi izaten ikastea inportantea da, horrela, indartu egiten dira-eta psikologikoki. Familian arazo mentalak dituen jendea izatea estigma bat da, jendeak erotzat hartzen ditu segituan. Beraz, ingurukoek estigma hori gainditzea da kontua. Buruko gaixotasuna osasun arazoa ez ezik arazo soziala ere bada. Askotan horrelako gaitzak dituztenak etxean isolatzen dira, eta hori da, hain zuzen ere, egin behar ez dena; isolamendu hori puskatu egin behar da eta ahalik eta normaltasun handienarekin gizarteratu.

**Gizarteratzeko biderik bada?**

Lehen aipatutako azpiegiturak daude hor, eguneko zentroak, adibidez. Bestalde, lan babestua ere badago. Baita tutoretzapeko etxeak ere. Gurasoen etxetik atera eta beste gaixo batzuekin bizi izateko. Bide luzea da, gizartean hasi eta bukatzen dena. Gizartean gainerako pertsonak bizi diren lekuan bizi behar dira gaixo horiek ere, eta ez orain arte bezala, adibidez, Santa Ageda bezalako tokietan, itxita, aparte.

**Zein sintoma dira gaixo mentalen adierazle?**

Esperientziak erakutsi digu oso gazterik hasten direla azaltzen gaitz mentalen lehen sintomak. Eguneroko giza bizimoduarekin edo lagunekin moztu eta isolatzea adierazle bat izan daiteke. Gizarteak asko eskatzen digu eta eskari horiei erantzun ezinik dabiltzan askok arazo mentalak izaten dituzte. Hala ere, zaila da horrelako gaitzak antzematea.

**Drogen kontsumoak ere ba ei du eraginik.**

Drogen eta pilulen kontsumoak lagundu egiten du buruko gaitzak garatzen. Gero eta gehiagok garatzen dute psikosia drogak hartzeagatik.

**Gaixotasun psikikoek badute tratamendurik?**

Psikosia larria denean ez da sendatzen. Baina bitarteko egokiak jartzen badira, gaixotasuna hor egon arren, lotan edukitzea lortzen da. Hau da, gaixo mental bat etxean isolatuta egoten bada, nekez lortuko du gaitza loak hartuta geratzea. Egunero diziplina batekin lanean jardunez, ordea, gaixotasuna makaldu egiten da.

**Familiakoei zein gomendio emango zenieke?**

Horrelako kasu baten aurrean Agifesekin harremanetan jartzeko esango nieke. Gero elkarteak berak bideratuko ditu behar den tokietara. Bergaran aurki izango dugu bulego bat, baina bitartean Agifes-ek Donostian duen egoitzan jendea laguntzeko prest izango da. Bestalde, konturatu gara gaixo psikiko askoren gurasoak oso zaharrak direla; beraz, zer egingo dute gaixoek guraso horiek desagertzen direnean? Guk, esaterako, Urkoa fundazioarekin hitzarmena egina daukagu kasu horiek gertatzen direnerako.

**Zergatik dago gero eta buruko gaitz gehiago?**

Urtero ikusten dugu lehenengo aldiz gaixotasun mentalekin kontsultara joaten direnen kopuruak gora egiten duela. Gizartea gero eta gogorragoa delako gertatzen da hori. Lanaren arazoak badu eraginik, baita droga kontsumoak ere.

**Nahikoa osasun zerbitzu dago arazo horri aurre egiteko?**

Izugarrizko itxaron zerrenda luzeak daude; beraz, psikologo, psikiatra eta gizarte langile gehiago jarri beharko lirateke, osasun arazoa dena gizarteko arazo izatera pasa ez dadin. Bestalde, Foru Aldundiak baliabide gehiago jarri beharko lizkioke azpiegiturei. Adibidez, asko dira etxe tutelatuetan sartzeko izena eman dutenak, eta etxeen falta nabarmena da. Gaixoak seniderik gabe geratuko balira, horrelako etxe batera sartu eta bertan bera bezalako gaixoekin elkarteren bateko tutoreen babespean egongo lirateke.

**Lan arloan tokia izatea ere onuragarria da buruko gaitza dutenentzat, ezta?**

Gizartean normaltasunez sartzeko lan esparruan murgiltzea da erronketako bat. Horretarako, etapa aurre-laboraletik hasi, lan babestura pasa eta, ahal den neurrian, lan normalizatura iritsi behar da. Betiere, gaixotasunak lagatzen duen neurrian eta jakinda gora egin duen bezalaxe gaizki dagoenean berriz ere behera egin dezakeela. Bide hori irekita utzi behar da.

**Urriaren 10ean Osasun Mentalaren Eguna da. Modu berezian ospatuko duzue?**

Egun horren aitzakian osasun mentalari buruzko jardunaldia antolatu dugu. Gai horretan adituak diren hainbat pertsonak hitzaldiak egingo dituzte eta mahai-inguruak ere izango dira. Hori guztia Donostian izango da, baina gaiarekiko interesa duen edonork har dezake parte. Bestalde, urriaren 11n elkarteko kideok manifestazioa egingo dugu gizartea kontzientziatzeko eta bazterketarik eza eta zerbitzu hobeak aldarrikatzeko. Ondoren jolasak izango dira, baita Alaia abesbatzaren emanaldia ere, eta bazkalosterako dantzaldia eta sari banaketa antolatu ditugu. Aurten, egun honetarako aldarrikapen berezi bat egin dugu: haurren eta nerabeen osasun mentala prebenitzeko programen beharraren gainekoa, hain zuzen ere. Gazteen osasun emozionalak gure laguntza behar du-eta.

# *Zabalik*



TXARO ARTOLA

## *Fariseuak gu*

**Joan den astean III. Soziolinguistika Inkesta plazaratu zuen Eusko Jaurlaritzak. Euskarak 1996tik 2001era izandako bilakaera jakin genuen horrenbestez.**

**Azterketaren ondorioek harro egoteko motibo gutxi ematen digute euskaldunoi. Alderantziz, lotsa gorrituta *mea culpa* batean hasiko ginateke, zintzoak bagina. Hara zergatik.**

**Euskal Herria zatitzen duten eremu administratiboen artean alde nabarmenak diren arren, euskarak hobera egin du oro har, eskolan eta euskaltegietan irabazitako hiztunei esker, Kultura sailburu Miren Azkaratek inkesta aurkeztean azaldu lez. Hala ere, apenas aurreratu da hizkuntzaren erabileran. Azkarateren esanetan, euskaldun berriek erdararako joera dutelako gertatu da erabileraren geldialdia.**

**Baieztapen hori egia izanagatik ere, euskaldun zaharrek ezin diogu entzungor egin arazoan daukagun erantzukizunari. Are gutxiago kontuan hartuta, inkestaren arabera, euskara lekua galduz doala orain arte bereak ziren esparruetan, hau da, familian eta lagunartean.**

**A ze diferentea litzatekeen hiztun berri horien joera euskaldun zaharrek arduratsu jokatuko bagenu; eskolatik kalera jauztean euskaraz jarduteko gure animuak eta laguntza izango balituzte; koherentzia eta konpromisozko jarrera batekin gure hizkuntzan bizitzeko gogoa eta, batez ere, eredua emango bagenie; baina, ez, ez dugu neurria ematen, jakin badakigu, eta gurago dugu geure burua engainatzea hortaz; hizkuntza sustatzeko lana administrazio, euskara elkarte eta enparauena bakarrik dela sinestea; eta errua beti hurkoari leporatuta esne-mamitan geratzera. Eta horrela gabiltza. Fariseuak gu.**

# *Gutunak*

Ahalik eta iritzi gehienek izan dezaten tokia, ez da komeni makinazko 15 lerro baino luzeago idaztea gutun hauetan. Izena, telefonoa eta helbidea agertu beharko dira. Laburtu behar izanez gero, GOIENKARIAk bere esku du horretarako eskubidea.

Zure iritzia helarazteko:
Barrenkalea 33, 20570 BERGARA
Telefonoa: 943 76 92 71
Faxa: 943 76 29 77
Posta-e: goienkaria@goiena.com




## Faxistekin loturak apurtzeko garaia da

Mendeetako sufrimenduak argi utzi duen bezala, Euskal Herriaren existentzia ukatzen dutenen menpe, inposaketa, indarkeria, ukazioa eta zatiketa soilik jasotzera kondenaturik izango gara. Beraz, herri honen askatasunaren bidean pausu berriak ematen ditugunean ibiliko gara bakea eraikitzen.

Zentzu horretan, garai garrantzitsuak bizi ditu Euskal Herriak. Espainiara lotuta hiltzera kondenatzen gintuen estatutua agortu da. Autonomisten negoziorako eta justizian oinarritutako bakean bizi nahi dugunon kalterako, 77an sortutako iruzur handiena lurperatzea lortu dugu. Hortaz, inoiz baino aukera handiagoak ditugu askapen prozesuan pausu berri eta handiak emateko. Espainiar eta frantziar estatuekin loturak hautsi eta autodeterminazio eskubidea oinarritzat hartuta indarrak batzeko aukera paregabeak ditugu. Euskal Herri osoan eta euskal herritar guztientzat izango den plan bat behar dugu. Hala ere, pausu handiak emateko iruzur handiei irabazi beharko diegu. Iruzur handienak, gaur egungo egoeran bizitzera kondenatzen gaituzten plan partidistak dira (Ibarretxe plana…). Hitzetan konfrontazioa irudikatu arren (PP, PSOE, PNV, EA, IU…) finean oinarri berdinak dituztena: Espainiara lotuta bizi den Euskal Herria zatitu (Vascongadakoak, Nafarroa Garaia eta Iparraldea) eta ukatu batean lasai bizitzea. Batzuen izaera faxistarengatik eta besteen interes partidistengatik.

Beraz, historikoki Euskal Herriak bizi duen garai gogor bezain ilusionantearen aurrean tinko azaldu behar gara. Aurrera egiteko, momentuak eskaintzen digun aukera aprobetxatu eta iruzur berrien aurrean gogor azaltzeko garaia da.

Garai garrantzitsuak dira. Lotu borrokari!

ARETXABALETAKO SEGI
Aretxabaleta

## Presoen testuliburuendako diru laguntzak moztu ditu Arrasateko EAJk

Aski da! Ezin dugu EAJren jarrera honekin jarraitu. Herriak jakin behar du zein den erakunde honen benetako jarrera. Egin duten azkenekoa ere gogor salatzeko modukoa da.

Pasa den astean, espainiar prentsan (*El Mundo, La Razón*) artikulu bat kaleratu ei zuten nola Arrasateko udaletxeak (aurreko agintaldian onartutakoa) presoak bere ikasketak egin al izateko diru laguntza bat ematea adostu zuen. Ez da aste bakar bat igaro eta aukera izan duten bezain pronto, jarrerarik errazena eta koldarrena hartu dute: diru laguntza hori kendu eta akabo.

Presoak ez dira objektuak momentu bakoitzean jarrera bat edo bestea hartzeko.

EAJrekin hitz egiten den momentuan, guztiari baietz esaten diote, ados daudela dispertsioarekin amaitzeko, presoek ikasteko eskubidea dutela… Gero, ordua heltzen denean, konpromiso minimo bat eskatzen zaien momentuan, bide errazena hartzen dute eta espainiarren kritikek izan ditzaketen ondorioen beldur, hauen morroi bilakatzen dira horretarako hartu beharreko erabakiak hartuaz. Ezin dugu horrela jarraitu eta Arrasateko Etxerat elkartetik hau salatu eta jendeari jakinarazi nahi diogu benetan zer gertatzen ari den. Bakoitzak egin dezala gogoeta txiki bat horrelako jarreren gainean, eta atera ditzala bere ondorioak. Esan behar dugu, horrelako bidegabekeriak salatzen, eta jendeari errealitatea zein den jakinarazten jarraituko dugula. Horrekin batera, EAJkoei esan nahi diegu eurak ondo bizi diren artean guk ez ditugula presoak alde batera utziko. Presoen eskubideen alde borrokatuko dugula, helburuak lortu arte.

Amaitzeko, jendeari animuak eman nahi dizkiogu eta deialdi bat egin nahi diogu borrokan dauden presoen alde aste honetan eta aurrerantzean egingo diren mobilizazioetan parte hartzeko. Guztioi dagokigu.

ARRASATEKO ETXERAT
Arrasate

## Nola egin EHNA?

Gure euskal herritartasuna adierazten duen agiri hau tramitatzeko, honako hau egin behar duzu: urriaren 12an, domeka, 12:00etatik 14:30era, Arrasateko Herriko Plazara joan hiru argazki eta 12 eurorekin. Aldez aurretik, herrian erroldatuta zaudela frogatzeko ziurtagiria eskatu behar da udaletxean. Horren ondoren, Herriko Plazan bertan emango dizuten eskaera orria bete, aipatutako dokumentazioa gehitu, eta han bertan eman. Hortik hilabete batzuetara, igorriko zaizu Naziotasun Agiria.

EHNA tresna eraginkorra izateko sortua izan da, eta gu guztion esku dago hala izatea. Beraz, dei egiten dizugu, EHNA erabil dezazun zure bizitzaren ahalik eta esparru gehienetan (banketxeetan, komertzioetan, eskaerak luzatzeko garaian…).

Hona, beraz, aukera. Euskal herritarrak gara, ez gara beste nazioetako herritarrak baino gehiago, ez eta gutxiago ere. Beste edozein herritako herritarrak bezala, gure naziotasuna, Udalbiltzak abian ipini duen agiriaren bidez, onartua ikusten dugu.

Guztion artean, Euskal Herriaren alde, lan polita egin dezakegulakoan gaude. Bide horretan elkar ikusiko garelakoan, jaso ezazu agur bero bat.

BAI EUSKAL HERRIARI EKIMENA
Arrasate

# *Olatz eta Patxi*

MIKEL ARROIABE



# Eztabaida

Joan zen irailaren 22an Autorik Gabeko Eguna izan zen. Gaur egungo mugikortasun ereduek sortzen dituzten kalteekin (osasunean zein ingurunean) konturaraztea da egun horretako helburu nagusia. Garraio publikoa erabiltzea eta bizikletaz nahiz oinez ibiltzea jasangarriagoak direla jakinarazi nahi izan zieten herritarrei egun horretan. Autorik Gabeko Eguna bultzatu eta ekintza bereziak antolatu dituenik bada, baina baita horrelako egunek ezer gutxirako balio duela pentsatzen duenik ere.

# Autorik Gabeko Egunak zerbaitetarako balio duela uste duzu?

## ‘Autoaren kultura’ aldatzeko garaia da



ANDER RODRIGUEZ
Arrasateko Udaleko IU-EBko zinegotzia

Irailaren 22an Arrasatek bat egin zuen –bigarren urtez– hainbat hiritan urte luzetan ospatu duten *Nire hiria autorik gabe* ekimen europarrarekin. Egunaren gaineko balorazioa positiboa da oso, bati baino gehiagori buruhausteak eragin zizkion arren.

Hala ere, ez dugu egun hau inolako eraginik gabeko salbuespen edo ekintza puntual modura hartu behar. Herritarrei mugitzeko jasangarriak diren bideak erakutsiz, gizartean eztabaida bultzatzeko eta jendeari zer pentsatua emateko lehen pausoa izan da. Honela, administraziotik mugitzeko arrazoizko alternatiboak abian jarri ditugu.

Epe motz, ertain eta luzera egindako plantzat har dezagun, beraz. Helburua, *autoaren kultura* –nork bere autoaren gehiegizko erabilera– aldatzen saiatzea. Horretako, jendeari jakinarazi behar zaio egungo mugitzeko ohiturak zein diren kaltegarriak osasunarentzat eta ingurumenarentzat. Izan ere, sintomak oso kezkagarriak dira: zirkulazio arazoak, aparkatzeko zailtasunak, zarata, airearen kutsadura...

Datuak nahiko argigarriak dira: motor bidezko errepideko garraioek airea kutsatzen duten partikulen %40 sortzen dute, eta aireko kutsaduraren eragile nagusia da. Bestalde, hirietako zarataren %80 ere motordun ibilgailuetatik dator. Autoa hiru kilometrotik beherako bide uneetan erabiliko ez bagenu, energia kontsumoaren %60 aurreztuko genuke. Autoen %80 bidaiari bakarra barruan dutela ibiltzen dira errepideetan. Garraio publikoa seguruagoa da (autobusean bidaiatzea autoz joatea baino 9 aldiz gehiago).

Hala ere, autokritika egin beharrean nago, Udala ez baita bere arduretatik libre geratuko. Arrasateko garraio publikoa hobetu behar dugu, eta ez herri barrukoa bakarrik, Donostia eta Bilborekiko dauden lotura arazoei aurre egin behar diegu. Gainera, inguruko enpresek garraio kolektiboa bultzatu beharko lukete.

Ordua heldu da bakoitzak duen apurra jartzeko. Hirian mugitzeko beste bide batzuk erabili behar dira: garraio publikoa edo bizikleta, autoa partekatuta, oinez ibili… Denon artean mugikortasun jasangarria lortuko dugu.

**“Datuak argigarriak dira: autoen %80 bidaiari bakarra barruan dutela ibiltzen dira errepideetan”**

## Egun bakarra gutxiegi da autoaren aurka egiteko



JAVIER ABALDE
Ekologista

Autorik Gabeko Eguna, bakarra. Gutxiegi dela esatera ere ausartuko nintzateke, baina ahalegin apur horrek zerbaitetarako balio dezake, gaia kalean egon dadin behintzat bai. Ez dago zertan maximalista izan horrelako kontuekin, ez dira tontokeria bat, ezertarako balio ez dutela esateko moduan ere ez nago. Horrelako egunek heziketa funtzioa betetzen dute, baina bere horretan geratzen dira jarraipenik ezean. Ez nago autoaren egunaren kontra, baina hutsaren hurrengo da, hurrengo egunean betiko jarreretara bueltatuz gero.

Jendeak benetan autoaren erabilerak dituen kalteei buruzko kontzientzia izango balu, beste neurri batzuk hartu beharko lirateke: astean behin ekintzak antolatu, oinezkoentzako gune gehiago ipini, trafikoari buruzko ikerketak egin eta horren arabera arazoei irtenbidea eman...

Hala ere, kanpainak autoek hirian sortzen dituzten arazoen berri emateko egiten dira, baina askotan ez gara ohartzen autoek hiritik kanpo eta oro har gizartean kalte handiak sor ditzaketela. Izan ere, autoa gaur egun gizarteko oso parte garrantzitsua da. Demagun norbaitek erabakitzen duela arazo honekin amaitzeko autoak fabrikatzeari laga behar zaiola; bada, kaltetu ugari izango lirateke: auto lantegiak, petrolio enpresak, pneumatiko egileak eta nola ez erabiltzaileak. Autoa sortu zutenean pizti bat ekarri zuten gure mundura eta orain ez dago pizti hori geratzeko modurik.

Arazoak arazo eta ekologista banaiz ere, autoa erabiltzera behartuta nago nire lana dela eta, are gehiago Debagoienean bizita. Orain dela gutxi autorik gabe geratzeko zoria edo zoritxarra izan nuen, igandez eta Donostian, eta horrek erakutsi zidan ezinbestekoa dela autoa edukitzea, autobus bakarra zegoelako etxera bueltatzeko.

Berdea izatea eta ingurumena zaintzea badirudi modan dagoen kontua dela eta erakundeek ere moda horri jarraitu Autorik Gabeko Egunean motorbidezko ibilgailuen aurkako aldarriak egin dituzte. Baina beraien izena zuritzeko edo berdetzeko ekintza bat gehiago izan da, aukeran gutxi gainera.

**“Autoa sortu zutenean pizti bat ekarri zuten mundura, eta orain ez dago geratzeko modurik”**

**HURRENGO EZTABAIDAGAIA** Iritzia emateko: goienkaria@goiena.com

*Lehen baino hobeto ala okerrago jaten dugu gaur egun?*

# Gora eta Behera

### ITOIZKO SOLIDARIOAK

Artozki da Itoizko Solidarioen borrokaren azken erreferentzia gunea. Borroka ez da Itoiz urtegia egitearen kontrakoa bakarrik, progresoaren izenean natura suntsituz egiten diren eta egin nahi diren obra erraldoien kontrakoa baizik. Horri buruz asko dakigu eskualdean: AHT, Eko-hiria, Eibar–Gasteiz, Beasain–Durango...

### ARRASATEKO UDALA

Udal Osoko bilkurak gazteleraz egitea euskararen normalkuntzarako bidean atzerakada handia da. Bestetik, garbitasunaren izenean, egunero kartelak kentzeko hartu den neurria herriaren konbibentziarako oso atzerakoia da, elkarte askori informazioa zabaltzeko dugun bidea ixten baitigu.



JON LOPEZ
Euskal Herrian Euskaraz taldeko kidea

# Koplak

## *Maritxu kajoi*

Dotorezia, elegantzia
barikuan Arrasaten
urte guztia itxaroten ta
pasako da di-da baten.

Haurrak, gazteak eta helduak
denok gaude festarako
komisinuak egitaraua
prestatu du hortarako.

Urtero legez enparantzara
ezingo dugu huts egin
guztiok zinez abestu behar
miraria bete dedin.

Euskal Herriko txokoetatik
hurbilduko da jendea
gaupasa on bat botatzea da
guzti horien xedea.

Makillajea ta eskoteak
neskak oso seduktora
mutilak berriz bista gozatuz
egongo dira gustora.

Jai ederra da baina badauka
nolabaiteko arantza
negozio soil bat bihurtu den
hori da nire zalantza.

ITZIAR OSA

Goienkaria
DEBAGOIENEKO ASTEKARIA

ZUZENDARIA
Eneko Azkarate
ERREDAKZIO KONTSEILUA
Edorta Mendieta, Miguel Angel Elkoroberezibar, Josemari Velez de Mendizabal
ADMINISTRAZIOA
Agurtzane Gaintzarain, Ane Berezibar, Iratxe Bengoa
SAILETAKO ARDURADUNAK
Iñaki Iturbe (Diseinua)
Gotzon Arzelus (Publizitatea)
PUBLIZITATEA
Arantzazu Lagunilla, Mireia Larrañaga, Natali Martinez, Izaskun Bolinaga, Ziortza Martin, Imanol Elortza
PRODUKZIOA
Iban Arantzabal
TESTUEN ZUZENKETA
Sergio Azkarate
HARPIDETZA ETA BANAKETA
Marta Leturia

Goiena Komunikazio Zerbitzuak
LEHENDAKARIA
Estepan Plazaola
ZUZENDARI NAGUSIA
Iñazio Arregi

GOIENKARIAk ez du bere gain hartzen orri hauetan adierazitako esanen eta iritzien erantzukizunik.

# Aramaio, auto azkarren bilgune

## Azpiko Racing taldeak antolatuta 'rallysprint'-a izango da,datorren zapatuan, urriaren 10ean

IRATI AGIRREAZALDEGI

**Datorren urriaren 11n jokatuko da Aramaion *rallysprint*-a, bertako Azpiko Racing taldeak antolatuta. Bigarren urtea izango da aurtengoa, eta zapatuan auto zarata izango da nagusi Aramaio eta inguruko errepideetan. Ibilbideak 26 kilometro inguru izango ditu.**

Sarritan entzun ditugu auto *rally*-ei buruzko berriak, baina zer da *rallyspint*-a? Errepideko ibilbide batean joan-etorria bi aldiz egitean datza. *Rally*-etan hainbat bidegune izaten dira, eta igoeretan, berriz, aldapa bat igotzea da kontua. Horrek ezberdintzen du *rallysprint*-a gainontzeko probetatik: joan-etorriko lasterketa izateak, alegia.

Aramaioko *rallysprint*-ak bigarren aldia izango du, eta ibilbidean aldaketa egin dute. Aurtengoa politagoa dela esan digute antolatzaileek. Bideguneak 6,6 kilometro ditu, eta, bi joan-etorri direnez, 26,4 kilometro bete beharko dira. Errotabarritik Aixolara joango dira auto gidariak eta Arrixolatik eta Etxaguengo bidegurutzetik Gantzagan zehar Ibarrara bueltatuko dira.

Auto zaratarik ez da falta izango, beraz, datorren zapatuan Aramaion. Arratsaldeko 14:30ean abiatuko da lehenengo partaidea eta proba 20:30ean amaituko dela espero dute.

**PARTAIDEAK**

Gehienak Euskal Herrikoak izango dira, baina tartean errioxarrik ere bada. Urriaren 10era arte ez da izena emateko epea amaituko; beraz, baliteke beste hainbat txokotatik jendea animatzea; Santandertik, esaterako. Aurreko edizioan 33 partaide izan ziren, eta aurtengorako 40 lagun inguru espero dituzte antolatzaileek.



GOIENKARIA

Marka eta era askotako turismoen gidariek hartuko dute parte proban, betiere federatuta badaude.

Autoak, berriz, askotarikoak ibiliko dira zirkuituan, baina auto igoeretan ibiltzen diren barketek ez dute lekurik izango proban. Beraz, turismoak izango dira denak: Citroën AX, Renault 5 Turboak, Seat Ibiza markakoak, Mitsubishiren bat... Partaideen autoak *rally*-etarako bereziki prestatutakoak izango dira, balaztak eta gainerako osagaiak ondo dituztenak. Batzuk potentzia handiagokoak eta normal antzekoak besteak.

Hala ere, guztiek pasatu beharko dute zapatu goizean homologazio proba, eta onartutako autoen gidariak baino ez dira izango irteeran. Bestalde, gidari horiek guztiak federatuta egon beharko dute.

Ibilbidean aurrera eta atzera ibili ondoren, bideko epaileek proban izandako gorabeherak aztertu eta azken emaitza emango dute aditzera.

Sari banaketa 22:30ak inguruko iragarri dute Azpiko Racing taldekoek. Aurten 4.200 euro izango dira saritan.

**AZPIKO RACING**

Proba antolatzen Aramaioko Azpiko Racing taldea dabil. Ez dute *rallysprint*-etan parte hartzen, baina zaleak izanik maiz joaten dira inguruko zein kanpoko probak ikustera, jarraitzaile gisa.

Lagun gutxi batzuek egin dute lan gogorrena, baina izan dute herritarren laguntza, baita Udalarena ere. Izan ere, horrelako proba bat aurrera ateratzea ez da txantxetako kontua.

Auto lasterketa eta abiadura zaleek Aramaio inguruetan dauden A-4023 eta A-4025 errepideetako bide bazterrak beteko dituzte zapatuan, auto gidariak animatzeko eta ikuskizunaz gozatzeko.

## Emilio Huerta lehenengoz Aramaion

**Errepideko motor handiak gidatzen zituen Emilio Huerta arrasatearrak lehen, baina horien arriskua ikusita, autoak gidatzera pasatu zen. Ez nolanahiko autoak, gainera. Autoekin hasi zenetik, era askotariko probatan hartu du parte: auto-krosean, lur gainean, hasi eta gaur egun *rally*-etan ibiltzen da.**

**Seat Ibiza autoa erabiltzen du, karreretarako bereziki prestatua, eta pixkanaka beste automobil bat gertatzen ari da, potentzia handiagokoa izango dena. Hala ere, horrek lan eta diru asko eskatzen du.**

**Aramaioko *rallysprint*-ean lehenengo aldia du Emilio Huertak. Izan ere, aurreko edizioan ez zuen parte hartu, oraindik lurreko zirkuituetan ziharduen-eta. Orain gertu daude asfaltorako, bai Emilio baita autoa ere. Egun horretan bertan Urbasako auto igoera izango da jokoan, baina Huertak nahiago ditu *rallyspint*-ak igoerak baino. "Igo eta jaitsi behar diren ibilbideak gustatzen zaizkit, bestela potentzia handiko autoak behar dira-eta".**

**Aramaiora zein asmorekin joango den galdetuta zera erantzun digu arrasatearrak: "Parte hartzea da nire helburua, eta, ahal dela, autoa etxera bueltan osorik ekartzea. Hala ere, proba bailaran izanik, gurako nuke paper ona egitea, eta nire mailan irabaziko banu, hobe. Izan ere, sailkapen orokorrean goiko postuetan amaitzea oso zaila da, potentzia handiko autoak daude-eta".**






Goi mailako Lanbide Heziketako Batxilergo Institutua
**Miguel ALTUNA**

*EUSKO JAURLARITZAKO JUSTIZIA, LAN ETA GIZARTE GAIETAKO SAILAK*
*DIRUZ LAGUNDURIK ETA EUROPAKO FONDO SOZIALAK ERE FINANTZATURIK*

# TXIRBIL HARROKETA BIDEZKO MEKANIZATU IKASTAROA

IRAUPENA: 695 ordu.
NORENTZAT: **Langabezian dauden gizon-emakumeentzat.**
EGITARAUA:
**1.TEORIKO-PRAKTIKAK. (495 ORDU)**

| | |
|---|---|
| Produktuaren ezaugarriak egiaztatzea | 75 ordu |
| Planoen interpretazioa | 40 ordu |
| Bistak eta krokizazioa | 40 ordu |
| Fresatzeko makina konbenzionaleko mekanizazioa | 60 ordu |
| Tornu konbenzionaleko mekanizazioa | 60 ordu |
| Mekanizazio-prozedurak: ebaketa eta konformazioa | 40 ordu |
| Artezteko makina zilindrikoko mekanizazioa | 40 ordu |
| Artezteko makina lauko mekanizazioa | 40 ordu |
| Lan taldeko harremanak | 60 ordu |
| Fabrikazio mekanikoko industrietako Segurtasuna eta Ingurugiroa | 40 ordu |

**2.LANTEGIKO PRAKTIKAK (200 ORDU)**

*EUROPAKO FONDO SOZIALAK ERE FINANTZATUA*

*DIRULAGUNTZA:*
JUSTIZIA, LAN ETA GIZARTE GAIETAKO SAILA
DEPARTAMENTO DE JUSTICIA, EMPLEO Y ASUNTOS SOCIALES

**Matrikula zabalik 2003ko irailaren 29tik aurrera. Ikastaroaren hasiera urriaren 20an.**
**Informazio gehiago idazkaritzan: 943 76 24 91 eta 943 76 38 40.**




**KUPOI HONEKIN**
**%15eko deskontua**
**ARTE EDERRETAKO MATERIALEAN Urriaren 31ra arte!**

J.URIARTE PAPER DENDA
Ferrerias 32 · ARRASATE · 943 77 03 80

## PINTOREAREN HILABETEA




Ormazabal
BARNE ARKITEKTURA
Garibai 6C • 20500 Arrasate
Tel.: 943 71 19 81
Faxa: 943 71 19 82
GIPUZKOA

# Goienka2a

Kultura eta aisialdia

Egubakoitza / 2003ko urriaren 3a

Urriaren 3tik 10era




## ORRI ZURIAREN AURREAN

Idazle Eskola jarriko da abian, Bergarako UNEDen bidez, hilabete honetan /14

AZALA: IÑAKI ITURBE

EUSKARA/ **EUSKAL HERRIKO IDAZLEENDAKO IKASKETAK BERGARAN**

# Bergarako UNED, idazleen bilgune

EUSKARAZKO IDAZKETA PRESTIGIATZEKO IKASKETA BERRIA ESKAINIKO DUTE EUSKAL IDAZLEEN ELKARTEAK, ASMOZ-EK ETA UNED-EK

LEIRE KORTABARRIA

**Bergarako UNED aukeratu dute Euskal Idazleen Elkarteak eta Asmoz fundazioak hezkuntza ekimen interesgarri batendako: Idazle Eskola. Idazketa literarioa eta profesionala hobetzen laguntzea da graduatuondoko ikastaro horren helburu nagusia. Urriaren 18an hasiko da.**


LEIRE KORTABARRIA
**Idazle Eskolak euskaraz dotore idazteko gaitasuna bermatzea du helburu.**

Idazle Eskolak helburu handiak ditu: "Euskaraz idazteko gaitasuna bermatzea du helburu; bestalde, euskara ohikoa ez den alorretan erabilgarri egiteko baliabideak eskaini nahi ditu; eta baita arlo literario eta profesionalean euskaraz egiten denaren eta egin daitekeenaren berri ematea", antolatzaileen esanetan. Eta horretan, zeresan handia izango du Debagoieneko hezkuntza zentroak.

Lehen ikasturtea urriaren 18an hasiko da, eta, Bergarako UNEDek eskaintzen dituen ikasketa guztiak bezalaxe, zati bat norberak etxean, ordenagailuz, egiteko aukera izango du, baina eskola presentzialak ere egongo dira, aipatutako Debagoieneko hezkuntza zentroan. Izan ere, ikastordu gehienak presentzialak izango dira, eta Euskal Herri osoko ikasleak elkartuko dira Bergaran.

**ARMAK "ZORROZTU"**

Idazle Eskolaren barne, bi idazketa mota landuko dira: literarioa eta profesionala. Bi ikasturtean, hortaz, idazketaren inguruko hamaika jakintza alor landuko dituzte: "Lehenengo ikasturtean, gai gehienak komunak izango dira ikasle guztiendako; bigarrenean, nork bere espezialitatean gehiago sakonduko du", azaltzen du Tere Irastortza Idazle Eskolako arduradunak. Idazketa profesionalaren barne landuko dira pedagogia, administrazio, itzulpenerako… idazketa egokienak.

Ez da ahaztu behar ikasketa hauek lanbidez idazketa erabiltzen duten lagunei daudela zuzenduta; hortaz, idazketaren gaineko sekretu guztiak haien eskura jarriko ditu Idazle Eskolak. Adibidez, literatura klasikoa, itzulpena -batez ere, euskararen kasuan-, idazlearen figura… landuko dira, baina baita irakatsiko zaie ikasleei ipuin on bat idazteko armak zeintzuk diren, eta horiek "zorrozten".

**ZAPATURO ELKARTUKO DIRA**

Beste behaketa alor bat izango da argudiogintza; Tere Irastortzak dioen bezala, "testuaren bidez, irakurleak konbentzitzen irakatsiko diegu". Horretarako, testuaren ulergarritasunaren kontzeptua jorratuko dute. Irastortzaren esanetan, hori maiz ahazten den kontzeptua da: "Testuarekiko lilura gertatzen da batzutan; horrek esan nahi du irakurlea ahaztu egiten duela batzutan idazleak", dio irakasleak.

Bergarako UNEDeko egoitzan Euskal Herri osotik etorritako idazle profesional zein sortzaileak elkartuko dira, hortaz, zapatu goizero, Tere Irastortza, Jon Alonso eta Jexux Eizagirre irakasleen gidaritzapean.

## Elkarrekin irakurri

**Idazle Eskola da Debagoiendarron idazteko zaletasuna bultzatzeko aukera erakargarrienetako bat. Hala ere, askotan esaten da idazle on batek, lehenengo, irakurle on izan behar duela, eta irakurzaletasuna sustatzeko aukerak ere ez zaizkigu falta Debagoienean.**

**Horietako bat da, adibidez, Arrasateko udalak urtero antolatzen dituen Literatura Solasaldiak, eta aurten ere abian jarri berri dituztenak. Hirugarren edizioa dute dagoeneko. Izenemate epea zabalik dago hilaren 17ra arte, Monterronen. Urtero bezala, bi talde antolatu dituzte, bata euskaraz, Iban Zalduak koordinatuta, eta bestea gaztelaniaz, Ana Arregiren ardurapean. Urrian hasi eta ekainera arte egongo dira jardunaldiak.**

**Solasaldiotan, hilero liburu bat irakurtzen du taldeak, eta bileretan, liburuaren eta egilearen gainean berba egin, zalantzak argitu eta, oro har, tertulia egiten dute.**

**Antolatzaileek deialdi berezia egiten diete aurten gizonezkoei, batetik, eta euskarazko irakurketa taldean parte hartu nahi dutenei, bestetik.**

**TERE IRASTORTZA** / IDAZLE ESKOLAKO ZUZENDARI ETA IRAKASLEA

# *"Ikasle gehienak arituak dira idazketan"*

**Tere Irastortza idazle eta irakaslea (Zaldibia, 1961) Idazle Eskola antolatu duen Euskal Idazleen Elkarteko presidentea da, eta Idazle Eskolako zuzendaria.**

**Zein motatako ikasleek eman dute izena?**

Nabarmena da gehienak arituak direla idazketan; argitaratutako zein argitaratu gabeko lanak dituzte; batzuk profesionalak dira, beste batzuk sariren bat irabazi dute… Ez da guztien kasua, baina bai gehienena.

**Ikastaroko ordu gehienak presentzialak izango dira, eta Bergaran emango dituzue. Horrek izan du eraginik zonalde honetako ikasle gehiago egotean?**

Bai; izan ere, ikasle gehienak Gipuzkoatik eta Bizkaitik datoz. Hala ere, Euskal Herri osoko jendea aurrematrikulatu da.

**Zuk zeuk urte askoan egin zenuen lan Bergarako UNEDen. Idazle Eskola ondo moldatzen da urrutiko hezkuntza sistemara?**

Bai. Izan ere, hezkuntza metodo honen oinarria auto-ikasketa da, eta idazleak bakarkako ikasketa hori behar-beharrezkoa du. Irakasleok adibideak, ariketak… proposatuko ditugu, baina norberak egokitu beharko ditu bere beharretara. Bestalde, ikasle guztiek ez dituzte ikasketotako alor guztiak berdin behar izango; norberak bata edo bestea aukeratuko du. Ikasketa bera ikasleen beharretara moldatuko da. Ikasketa praktikoa izango da, teorikoa baino. Gai orokorrak klase presentzialetan landuko dira; urrutiko ikasketak, batez ere, bigarren ikasturtean izango dira nagusi, eta gai espezializatuagoetan.

**Idazketa sortzaileak lagun dezake idazketa profesionala hobetzen?**

Izan dezake eragin positiboa, bai. Adibidez, idazketa profesionala oso lotua dago itzulpenera, eta testuak, sarritan, lotuegiak egoten dira jatorrizko testuari. Horrek itzultzailearen idazketa baliabideak galarazten ditu. Idazketa sortzaileak ihes egiten dizkie idazketaren arazoei, eta hizkuntzaren eragozpenak gainditzen laguntzen du.


Tere Irastortza idazle eta irakaslea.

**Itzulketa aipatu duzu; zuk itzulpen lanak egin dituzu, eta gai hori ere landuko duzue eskolan… Hizkuntzak menperatzeak garrantzia du idazle hobea izateko?**

Bueno, itzultzaile izateak esan nahi du hizkuntzekin eskarmentua baduela pertsona horrek. Baina eskolan ez dugu hainbeste landuko itzulpenaren zuzentasuna, baizik eta zein ekarpen egiten dion itzulketak idazketari. Itzulpenaren alde "artisaua" landuko dugu.

**KRONIKA/ LAUSARDI KORU SINFONIKOA, ARRAKASTATSU BILBON**

# Bilboko publikoa, poltsikoan

## 'THE CRUCIFIXION' ORATORIOA ESKAINI ZUEN LAUSARDI ABESBATZAK EUSKALDUNA JAUREGIAN

LEIRE KORTABARRIA

**Plaza berri batean abestu zuen Lausardi Debagoieneko Koru Sinfonikoak joan den domekan: Bilboko Euskalduna antzokian, hain zuzen ere. Eta aretoaren pareko maila erakutsi zuen ibarreko abesbatzak: publiko zabala elkartu zen, eta txalo ugariz saritu zuen Lausardiren lana.**



ARTXIBOA

**Debagoienean eskaini izan zuen Lausardik 'The Crucifixion', baina lehen aldia izan zuten Bilbon.**

Etxean, Debagoienean, eskainia zuen Lausardi Koru Sinfonikoak *The Crucifixion* lana, baina publiko berri baten aurrean, eta, batez ere, Euskalduna bezalako areto batean eskaintzea erronka berri bat zen debagoiendarrondako. Han abesten zuten lehenengo aldia zen, kontatu gabe Bergarako Abesbatzarekin *Oliver!* antzezlan musikatuan parte hartu zuteneko aldia.

Euskalduna jauregiko areto nagusian izan zen emanaldia, joan zen domekan. Leku berria zen Lausardikoendako, eta, ezaugarri fisiko eta teknikoengatik, beldurgarria ere izan zitekeen: punta-puntako auditorioa da, 2.000 bat lagunendako edukiera duena.

Bizkaiko Aldundiaren gonbidapenez joan ziren Lausardikoak, eta horrek ere erantzukizun maila bat jartzen zuen haien gainean, baina, abesbatzako kide batzuen esanetan, "oparia" ere izan da han abestea. Jende askotxo elkartu zen: auditorioa oso handia bada ere, beheko aldea ia guztiz bete zen. Debagoiendar batzuk ere joan ziren, baina gehienak entzule berriak ziren.

### LAN BOROBILA

Aretoaren ezaugarri teknikoak eta akustika bikaina lagun izan zituzten Lausardiko 70 bat abeslariek eta bi bakarlariek. Hain zuzen ere, bereziki azpimarratu behar da Jon Etxabe tenorearen eta Jesus Mari Garzia Arejula baritonoaren lana. David Azurtzaren zuzendaritzapean abestu zuen Lausardik.

John Stainer (1840-1901) konposatzaile ingelesaren *The Crucifixion* oratorioa jokatu zuen Lausardik. Emanaldiak bi zati izan zituen: lehenengoan, organo jotzaileak, Daniel Oiartzabalek, Bach, Vierne eta Messlaen konposatzaileen lanak eskaini zituen; bigarrenean, berak eta abesbatzak elkarrekin erakutsi zuten euren maila. *The Crucifixion*, izatez, ez da oso lan luzea, emanaldiari dagokionez -ordu eta erdi pasa iraun zuen kontzertuak-, baina bai prestatzen zaila abeslariondako; eta hainbat zailtasun ere bazeuden: batik bat, bigarren zatian, organo jotzailearen, bakarlarien eta abesbatza osoaren lanak modu harmonikoan elkarrekin uztartzea.

Azkenean, ager zitezkeen zailtasun guztien gainetik, lan borobila burutu zuen Lausardi abesbatzak, eta, horren ordain moduan, publikoak txalo sesio luze eta hunkigarriarekin agurtu zuen ibarreko abesbatza.

**NIREAUKERA**




## 'EL PORQUÉ DE LAS COSAS' Quim Monzó

**Quim Monzo idazle kataluniarraren *El porqué de las cosas* ipuin liburua gomendatuko nuke, orain, *Ochenta y seis cuentos* ipuin bildumaren barne argitaratuta dagoena. Irakurri nuenean, inpresio handia egin zidan. Monzok, eguneroko kontu eta pertsonaiak hartuta, fantasiaz eta, batzuetan, misterioz betetako ipuinak idazten ditu, eta nahasmen hori oso dibertigarria iruditu zitzaidan. Metaforen erabilera oso deigarria da. Bestalde, ni neu ere aktore naizen aldetik, asko gozatu nuen istorio batzuen teatraltasunarekin, aukera handiak ematen dituzte-eta antzezpenerako.** /L.K.



**Maria Urtzelai**

Bergara, 26 urte. Aktorea. *El film es así* antzezlanarekin lanean dabil ekainetik hona.

UNED-BERGARA

Matrikula zaitez !

Ezin baduzu egunero joan klaseetara,



eta garai batean utzitako ikasketei heldu nahi badiezu,



karrera berri bat hasteko gogoa baduzu,

hizkuntzak ikasi... edo zure prestakuntza osatu





- 20 Karrera Unibertsitario baino gehiago
- Ikasketa-Plan berrietara sartzeko aukera
- Doktoretza Ikastaroak, Graduondokoak, Masterrak ...
- Tutoretza Telematikoak eta jarraipen presentziala

Urrutira baina etengabeko kontaktuan !!!

HAU DA BEHAR DUZUN UNIBERTSITATEA!

UNED-BERGARA IKASTETXE ELKARTUA
CENTRO ASOCIADO UNED-BERGARA

• UNED-BERGARA •
San Martín Enparantza 4
20570 Bergara
Tlf: 943 769 033
info@bergara.uned.es
www.uned.es/ca-bergara

# Urriak 3-10

**Leire Kortabarria /** Zuon ekitaldien berri iragarri ahal izateko bidali informazioa eguazteneko eguerdiko 12:00ak baino lehenago • Posta elektronikoa: **kultura@goiena.com** • Tel.: **943 76 03 97** • Faxa: **943 76 29 77**

## ERAKUSKETAK

### BERGARA

► **XIII. Kirol Argazkien lehiaketako** lanak daude ikusgai kultura etxean, urriaren 12ra bitartean, Udal kirol zerbitzuak eta Pol-Pol argazki taldeak antolatuta. Ordutegia: astelehenetik egubakoitzera, 18:00-21:00, eta zapatu eta jai egunetan, 12:00-14:00 eta 18:00-21:00.

## DEIAK

### ARAMAIO

► ***Araba, gure ondarea* kanpainako** ikasgela ibiltaria herrian egongo da gaur, egubakoitza, Azkoagako plazan, 12:00-14:00 eta 16:00-19:30.

► **Nekazari ibilgailuen azterketa teknikoa (IAT)** egingo dute urriaren 10ean, datorren egubakoitzean. Azterketak Olaetan, 10:00etan, eta Ibarrako Arbel biltegian, 11:00etan, egingo dituzte. Aurtengo tarifa 28 eurokoa izango da.

### ARRASATE

► **Autodeterminazioaren gaineko hitzaldi zikloa** dago abian, eta urriaren 8an, eguaztena, egongo da hurrengo jardunaldia. *Autodeterminación e inmigración* hitzaldia egingo du Pedro Albite EHUko irakasleak, Monterronen, 19:30ean. Mondragoetarrak taldeak antolatu du zikloa.

► **Zahar Berri taldeak** euskaldun zaharrak behar ditu, euskaldun berriei laguntzeko. Interesa izanez gero, deitu 943 77 12 28 telefonora.

► **Literatura solasaldiak** egongo dira urritik aurrera. Urte bukaerara arteko euskarazko solasaldiak urriaren 28an, azaroaren 25ean eta abenduaren 16an izango dira, 18:30etik 20:30era, eta Iban Zalduak koordinatuko ditu. Gaztelaniazkoak urriaren 23an, azaroaren 13an eta abenduaren 11n izango dira, ordutegi berean, Ana Arregik koordinatuta. Izenemate epea urriaren 17an bukatuko da. Horretarako, jo Monterronera.

### BERGARA

► ***Bergara, historia topagunea*** zikloaren barne, historiaren gaineko hitzaldia egingo du Jose Antonio Azpiazu adituak martitzenean, hilak 7, Migel Altuna institutuan, 19:30ean. Sarrera doan izango da.

► ***Iriaun, frantsesen urrea eta Elosu*** liburuaren aurkezpena egongo da datorren egubakoitzean, hilak 10, udaletxeko areto nagusian, 19:30ean. Juan Luis Bikuñak idatzitako eta Udalak argitaratutako liburua da.

► **Gipuzkoako Bertsolari Txapelketako** kanporaketa saioa jokatuko dute datorren egubakoitzean, urriak 10, Novedades aretoan. Ainhoa Agirreazaldegi eta Enaitz Alustiza bergararrek hartuko dute parte, besteak beste.

### LEINTZ BAILARA

► **AEDko Bertso Eskolak** ikasturte berrirako deialdia egiten die Leintz Bailarako 9-12 urte bitarteko neska-mutikoei. 30 euro kostatuko da matrikula. Egubakoitzero izango dira eskolak, 17:00etatik 18:30era. Izena emateko, jo AEDren egoitzara, Arrasateko Pablo Uranga kaleko 6ra, edo 943 77 12 28 zenbakira deitu.

### OÑATI

► **Kirol azterketak** egiten ditu Athlon-ek martitzenero kiroldegian, 14:30-18:30. Azterketa egin gura dutenek 943 77 16 77 telefonora deitu behar dute txanda eskatzeko.

► **Asturiasera bidaia** antolatu du Balma dendak urriaren 11n eta 12an. Izena emateko, deitu 943 78 06 62 telefonora (Jose Ignazio).

## JAIAK

### ARAMAIO

► **Untzillako jaiak** ospatuko dituzte gaurtik aurrera, egubakoitza. Honako ekintzak egongo dira, besteak beste: gaur, auzo afaria, 21:00etan, eta bertso saioa, segidan; bihar, zapatua, meza, 12:00etan, trikitilarien emanaldia gero, ume eta gaztetxoendako jolasak, 17:30ean; dantzaldia, 22:30ean; eta bolo txapelketa, 23:00etan. Etzi, domeka, meza nagusia egongo da, 12:00etan, eta *Vermouth* dantza emanaldia, 13:00etan.

### ARRASATE

► **Maritxu Kajoi eguna** izango da gaur, egubakoitza.

### ESKORIATZA

► **65 urtetik gorakoen omenaldi eguna** egingo dute etzi, domeka, Udaleko Gizarte Zerbitzu Sailak antolatuta. 12:30ean meza egongo da; segidan, salda jana; bazkaria, pilotalekuan, 14:00etan, eta dantzaldia eta opari banaketa, bukatzeko.

## ANTZERKIA

### BERGARA

► ***Kutsidazu bidea, Ixabel*** antzezlana eskainiko du Gorringo taldeak gaur, egubakoitza, Udal Pilotalekuan, 22:30ean.

### ELORRIO

► ***Malaje*** zirko-antzerki saioa eskainiko du Malaje taldeak gaur, egubakoitza, Arriola aretoan, 22:30ean. Arriolaren 15. urtemuga ospatzeko ekitaldien barne dago.

## IKASTAROAK

### ARETXABALETA

► **Taila ikastaroa** antolatu du Okila taldeak. Hastapen mailakoa izango da, eta urriaren 6an hasiko da. 60 ordu iraungo du. Izena emateko, jo udaletxera, kultura etxera edo Okila taldearen tailerrera (Murubide 5).

► **Dantza afrikar ikastaroa** egongo da azaroaren 4tik aurrera, sei martitzenetan, Burkina Fasoko dantzari baten eskutik. Eskolak Kurtzebarri ikastetxean izango dira, 20:00-21:30. Izena emateko, joan Aretxabaletako Azkena tabernara edo Arrasateko Aker-tattoo dendara, urriaren 21a baino lehen. Matrikula 27 euro kostatuko da.

### ARRASATE

► **Hobetze mailako taila ikastaroa** antolatu du Arte Arrasateko Tailaginen



► ERAKUSKETAK

### 'CALCUTA: BEGIRADA ZABALIK' ERAKUSKETA ARRASATEN

Calcuta Ondoan Gobernuz Kanpoko Erakundeak Indiako hiri horren gaineko argazki erakusketa zabaldu du. Arrasateko kultura etxean duzue ikusteko aukera. *Calcuta: begirada zabalik* du izena erakusketak, eta Jose Lezarreta, Fernando Molerez eta Gonzalo Montiel argazkilari profesionalen 60 bat lan ikusteko aukera ematen digu. Irudion bidez, Calcuta Ondoan GKEk proposatzen digu, euren hitzetan, "jantzien zikintasunetik, gorputzen makalduratik eta miseria gorritik harantzago doakeen begirada bat; azken batean, pertsonen arteko begirada gizatiarrago eta duintzaileagoa". Calcuta Ondoan GKEk Ashabari-Home of Hope egoitzaren ardura darama, gaixotasun fisiko eta mentaletatik sendatzeko leku bat.

**Non:** Arrasaten, Monterron kultura etxean. **Noiz:** urriaren 10era arte, luzatzeko aukerarekin. **Ordutegia:** 18:00-20:00.





## JAM ARETOAREN 7. URTEMUGA DELA-ETA, LAU TALDE KONTZERTUAN

Bergarako Jam aretoak zazpigarren urteurrena du aurten, eta hori ospatzeko hainbat emanaldi berezi antolatu dituzte arduradunek. Datorren egubakoitzean, urriak 10, horietako lehen kontzertua egongo da, Rock City Morgue, Rockzilla, Mermaid eta Tee suckin' Dicks taldeekin, 22:00etan. Rock City Morgue taldea Birthday Party, Dead Boys, Kiss eta Ramones taldeekin konparatu izan dute, eta lehen diskoa aurkeztuko du Jam-en.

Elkarteak, urriaren 21etik abenduaren 4ra bitartean (30 ordu). 50 euro kostatuko da matrikula. Horretarako, deitu 943 79 77 57 (Jose Mari) edo 943 03 78 28 (Imanol) telefono zenbakietara.

### ESKORIATZA

► **In-line motako patinetan ibiltzeko ikastaroa** deitu du Udalak. Helduei zuzenduta dago, eta urriaren 12an eta 26an eta azaroaren 2an eta 9an izango da, 10:00etatik 12:00etara. Izena emateko, deitu 943 71 46 88ra.

### OÑATI

► ***Seme-alabekin euskeraz jolasian*** izenburuko ikastaroa antolatu du Euskara Sailak. 3 eta 8 urte arteko umeen gurasoei eta irakasleei dago zuzenduta. Hiru zapatuan izango dira eskolak. Argibideetarako deitu 943 78 04 11 telefonora (Marian edo Iñaki).

## LEHIAKETAK

### ANTZUOLA

► **Herriko toponimia jaso eta finkatzeko** lehiaketa deitu du Udalak. Parte hartzeko honako baldintzak bete beharko dira: goi mailako unibertsitate tituluduna izatea eta Antzuolako toponimoak batzeko aurreproiektua aurkeztea. Dokumentazioa aurkezteko mugaeguna urriaren 30a izango da.

### EUSKAL HERRIA

► **II. ZerNola Olinpiada** antolatu du Elhuyar Fundazioak. DBHko 1. eta 2. mailako ikasgelek har dezakete parte, eta irabazleek Urbasako Bioitza aterpetxean asteburu bat pasatzeko aukera izango dute. Argibideetarako bisitatu *www.zernola.net* webgunea edo deitu 943 36 30 40 telefonora.

## MUSIKA

### BERGARA

► **Jardun elkarteko trikitilarien** kalejira egongo da bihar, zapatua, 12:00etan.

► **Anastua Perku Band** taldearen emanaldia egongo da bihar, zapatua, Munibe plazan, 19:00etan.

► **Dimmu Borgir, Hypocrisy eta Norther** taldeen emanaldia egongo da datorren egubakoitzean, urriak 10, Jam aretoan, 20:00etan.

### ESKORIATZA

► **Arima beltza** blues-rock estiloko taldeak kontzertua eskainiko du datorren egubakoitzean, urriak 10, gaztetxean, 22:30ean.

### OÑATI

► **Balkoitik balkoirako bertso saioa** eskainiko dute Sebastian Lizasok eta Andoni Egañak etzi, domeka, 20:30ean.

# Zinema

### ARRASATE

■ AMAIA ANTZOKIA

***Historias mínimas***
Eguena, urriak 9: 21:30.

### BERGARA

■ NOVEDADES

***Piratas del Caribe***
Egubakoitza: 22:30.
Zapatua: 17:00, 19:30, 22:30.
Domeka: 17:00, 19:30, 22:30.
Astelehena: 19:30.

***Rosa, la china***
Eguena, zine-kluba: 20:00.

### OÑATI

■ OÑATIKO ZINEMA

Ez da emanaldirik egongo aste honetan.

### EIBAR

■ UNZAGA

***Dos policías rebeldes 2***
Egubakoitzetik eguaztenera: 17:00, 19:30, 22:15.

■ RIALTO

***La pelota vasca***
Egubakoitzetik eguaztenera: 17:00, 19:30, 22:15.

### GASTEIZ

■ GURIDI

***Dos policías rebeldes 2***
Egunero: 17:00, 19:45, 22:30.

***Interstate 60***
Egunero: 17:30, 20:00, 22:30.

***Piratas del Caribe***
Egunero: 17:00.

***Italian job***
Egubakoitzetik eguaztenera: 17:00, 19:45, 22:30.
Eguena: 17:00, 22:30.

***El divorcio***
Egunero: 20:00.

***Papá canguro***
Egunero: 17:30.

***Círculo de engaños***
Egunero: 19:45, 22:30.

***La pelota vasca***
Egunero: 17:30, 20:00, 22:30.

***El juego de Ripley***
Egunero: 17:30, 22:30.

***Deathwatch***
Egunero: 20:00, 22:30.

***Orlando***
Eguena, urriak 9: 19:45.

■ MIKELDI ZINEMAK

***La pelota vasca***
Egunero: 17:30, 20:15, 22:45.

***Dos policías rebeldes 2***
Egunero: 17:30, 20:15, 22:45.

***Verónica Guerin***
Egunero: 17:15, 20:00, 22:30.

***Enigma***
Egunero: 17:15, 20:00, 22:30.

***Círculo de engaños***
Egunero: 17:15, 20:00, 22:30.

***Italian job***
Egunero: 17:15, 20:00, 22:30.

***Piratas del Caribe***
Egunero: 17:00, 19:45.

***Confidence***
Egunero: 17:30, 20:15, 22:45.

***La liga de los hombres extraordinarios***
Egunero: 22:45.

Martitzena eta eguena, ikuslearen eguna.

■ FLORIDA-GURIDI

***Dias de fútbol***
Egunero: 17:30, 20:00, 22:30.

***Carmen***
Egunero: 17:30, 20:00, 22:30.

***Hotel Danubio***
Egunero: 20:00.

***Las mujeres tienen curvas (J.B.A.)***
Egunero: 17:30, 22:30.

***Verónica Guerin***
Egubakoitzetik domekara: 17:00, 19:45, 22:30.
Astelehenetik eguenera: 17:30, 20:00, 22:30.

***Noviembre***
Egubakoitzetik domekara: 17:00, 19:45, 22:30.
Astelehenetik eguenera: 17:30, 20:00, 22:30.

***El misterio Galíndez***
Egunero: 17:30, 20:00, 22:30.

***Together***
Egubakoitzetik domekara: 17:00, 19:45, 22:30.
Astelehenetik eguenera: 17:30, 20:00, 22:30.

■ ABACO-LAKUA ZINEMAK

***La liga de los hombres extraordinarios***
Egubakoitza eta zapatua: 17:15, 19:30, 22:00, 00:45.
Domeka: 17:15, 19:30, 22:00.

***Papá canguro***
Egubakoitzetik domekara: 17:25.

***Jeepers creepers 2***
Egubakoitza eta zapatua: 20:25, 22:35, 00:45.
Domeka: 20:25, 22:35.

***Días de fútbol***
Egubakoitza eta zapatua: 17:00, 19:30, 22:00, 00:30.
Domeka: 17:00, 19:30, 22:00.

***Dos policías rebeldes 2***
Egubakoitza eta zapatua: 16:00, 19:00, 22:05, 01:00.
Domeka: 16:00, 19:00, 22:05.

***Piratas del Caribe***
Egubakoitza eta zapatua: 16:30, 19:25, 22:15, 01:00.
Domeka: 16:30, 19:25, 22:15.

***Italian job***
Egubakoitza eta zapatua: 17:30, 20:00, 22:20, 01:00.
Domeka: 17:30, 20:00, 22:20.

***Verónica Guerin***
Egubakoitza eta zapatua: 16:15, 18:25, 20:35, 22:45, 01:00.
Domeka: 16:15, 18:25, 20:35, 22:45.

***Abajo el amor***
Egubakoitzetik domekara: 16:00, 18:15.

***Identidad***
Egubakoitza eta zapatua: 16:30, 18:30, 20:30, 22:30, 00:30.
Domeka: 16:30, 18:30, 20:30, 22:30.

***El misterio Galíndez***
Egubakoitza eta zapatua: 19:35, 22:15, 01:00.
Domeka: 19:35, 22:15.

Eguaztena, ikuslearen eguna.

■ YELMO CINEPLEX

***La liga de los hombres extraordinarios***
Egubakoitza eta zapatua: 15:35, 17:50, 20:05, 22:20, 00:35.
Domeka: 12:15, 15:35, 17:50, 20:05, 22:20.

***Jeepers Creepers 2***
Egubakoitza eta zapatua: 18:10, 20:10, 00:10.
Domeka: 12:15, 18:10, 20:10.

***Italian job***
Egubakoitza eta zapatua: 15:50, 18:05, 20:15, 22:25, 00:40.
Domeka: 12:15, 15:50, 18:05, 20:15, 22:25.

***Simbad: la leyenda de los siete mares***
Egubakoitza eta zapatua: 16:25.
Domeka: 12:15, 16:25.

***Dos policías rebeldes 2***
Egubakoitza eta zapatua: 16:15, 19:00, 22:00, 00:45.
Domeka: 12:15, 16:15, 19:00, 22:00.

***Papá canguro***
Egubakoitza eta zapatua: 16:40, 18:40, 20:40.
Domeka: 12:15, 16:40, 18:40, 20:40.

***Diablo***
Egubakoitza eta zapatua: 18:10, 20:25, 22:35, 00:45.
Domeka: 12:15, 18:10, 20:25, 22:35.

***Piratas del Caribe***
Egubakoitza eta zapatua: 16:15, 19:00, 22:00, 00:45.
Domeka: 12:15, 16:15, 19:00, 22:00.

***Carmen***
Egubakoitza eta zapatua: 15:45, 18:00, 20:15, 22:30, 00:45.
Domeka: 12:15, 15:45, 18:00, 20:15, 22:30.

***American pie 3: menuda boda***
Egubakoitza eta zapatua: 16:10, 20:10, 00:10.
Domeka: 12:25, 16:10, 20:10.

***Abajo el amor***
Egubakoitza eta zapatua: 16:20, 18:20.
Domeka: 12:15, 16:20, 18:20.

***Días de fútbol***
Egubakoitza eta zapatua: 15:40, 17:55, 20:10, 22:25, 00:40.
Domeka: 12:15, 15:40, 17:55, 20:10, 22:25.

***La pelota vasca***
Egubakoitza eta zapatua: 15:50, 18:05, 20:20, 22:35, 00:50.
Domeka: 12:15, 15:50, 18:05, 20:20, 22:35.

***Tiempos modernos***
Egubakoitza eta zapatua: 16:30, 18:30, 20:30, 22:30, 00:30.
Domeka: 12:15, 16:30, 18:30, 20:30, 22:30.

***Confidence***
Egubakoitza eta zapatua: 20:20, 22:20, 00:20.
Domeka: 12:15, 20:20, 22:20.

***El divorcio***
Egubakoitza eta zapatua: 22:40, 00:50.
Domeka: 12:15, 22:40.

***Doraemon***
Egubakoitza eta zapatua: 16:00.
Domeka: 12:15, 16:00.

***Identidad***
Egubakoitza eta zapatua: 18:05, 20:05, 22:05, 00:05.
Domeka: 12:15, 18:05, 20:05, 22:05.

***Deathwatch***
Egubakoitza eta zapatua: 18:00, 20:00, 22:00, 00:00.
Domeka: 12:15, 18:00, 20:00, 22:00.

***Los rugrats***
Egubakoitza eta zapatua: 16:05.
Domeka: 12:15, 16:05.

Astelehena, ikuslearen eguna.

***Tiempos modernos:* ●●●●● | *El divorcio:* ●●● | *Abajo el amor:* ●● |**

ESKASA:● BALEKOA:●● ONA:●●● OSO ONA:●●●● BIKAINA:●●●●●

## KRITIKA

### SOÑADORES

PUNTUAZIOA: ●●●●

**ZUZENDARIA:** Bernardo Bertolucci
**AKTOREAK:** Michael Pitt, Louis Garret, Eva Green.

Donostiako Zinemaldiaren bukaerarekin udazkeneko denboraldi zinematografikoa zabaltzen da. Hori dela eta, estreinaldien zenbakia eta interes maila areagotu egiten da. Aste bukaera honetako estreinaldi aipagarrienen artean, Bernardo Bertolucci zuzendari ospetsuaren azkeneko lana dugu. *Soñadores* Veneziako Zinemaldian aurkeztu zen eta Donostiako Zinemaldian ikusteko aukera izan dugu. Filmaren istorioa 68. urtean, Parisen (urte benetan mitikoa) gertatzen da. Hiru gazte dira protagonistak: bikiak diren anai-arreba frantziar bi (neska eta mutila) eta Ameriketako Estatu Batuetatik etorritako ikasle bat. Hirukote horren artean harreman erakargarri eta bitxiak sortuko dira, adiskidantza eta amodiozko sentimenduak nahasten diren triangelua osatuz.

*Soñadores*-en hasierako partea benetan liluragarria da: Paris hiria filmatzeko modua, pertsonaien aurkezpena, horien arteko laguntasunaren hasiera, Cinémathèque Français-eko eszenak, gazte amerikarra beste gazteen etxera joaten denean eta horien gurasoekin duen topaketa… Hori guztia oso modu berezian filmatua izateak, musikak eta zinemaren historian izan diren film handien zatien erabilerak lortzen du ikuslea harrapatua izatea denbora pasatzen doan bitartean konplikatuz eta aberastuz joango diren harremanetan murgilduta dauden pertsonaiengatik. Pertsonaiak, eurek sortutako mundu berezi baten bizi dira, eta euren harremanetan zerbait bihurriak eta burugabeak diren jokoak, intzestu kutsua duten harremanak, sexua, zinefilia, eta zeloak nahasten dira. Azkenean, mundu itxi horretan, maiatzaren 68ko errealitate sozialak bere eragina izango du, pertsonaiak jarrera bat hartzera bultzatuz.



*Soñadores* 68ko maiatzaren fresko antzeko bat da, eta Bertolucciri hain kalkulatzailea ez den eta burugabeagoa, utopikoagoa eta, filmaren izenburuak adierazten duen bezala, ameslariagoa den mentalitatea islatzeko aukera ematen dio. Zuzendariak garai hartako jendea omentzeaz gain, bere zineman ohikoak diren gaiak eta obsesioak ere ukitzen ditu.

ANTONIO ZABALA

KOROSTI INMOBILIARIA
Ibargarai 3 • BERGARA
Tel. / Faxa: 943 76 97 97
Santi Kutz 8 • LEGAZPI
Tel.: 943 73 05 25

**BERGARA / Etxebizitzak salgai**
- Bolu. 96,5 m². Egoera onean.
- Zubiaurren duplex txikia. Berrituta.
- Osintxu. 73 m². Ganbararekin.

**BASERRIAK**
- Angiozar: bi solairu, ganbara eta harmarri ederra.
- Osintxun 400 m² + 9 hektarea. Pinu eta fruitarbola ugari.

**ANTZUOLA / Etxebizitzak salgai**
- 88 m². Oso ondo kokatua.

**ANTZUOLA / Eraikitzen ari diren elkarri lotutako etxeak**
- 276.465,57 euro (49 milioi).

Semisotoa. Garaje handia eta txokoa.
Beheko solairuan: sukaldea, jangela, egongela, bainugela.
Lehen solairuan: hiru edo lau logela eta bi bainugela.
Teilatupeko solairua: m² ugari egokitzeko moduan.

SARE INMO f3 inmobiliaria
Erdiko kalea 26
ARRASATE
943 79 12 79

**SALGAI**

**ARRASATE**
- Erdialdean dago eta 66 m² ditu. Hiru logela, egongela, sukaldea eta bainugela. Berrituta. Ondo dago. 174.293 euro /29 milioi pta.
- 69 m². Logela bi, egongela, sukaldea, bainugela, sotoa. Guztiz berritua.
- Zigorrolan 70 m²ko etxebizitza salgai. Hiru logela. Berritu beharra dago.
- Erdialdean etxebizitzarako nahiz negoziorako balio duen etxebizitza salgai. Leku ezin hobean. Informazio gehiago bulegoan.
- Erdialdean 60 m²ko etxebizitza salgai. Bi logela, egongela, sukaldea eta bainugela. Erdi berrituta. Kanpoaldera.

**BERGARA**
- 60 m². Hiru logela, egongela, sukaldea, bainugela. Berriztuta. 117.197,36 euro / 19.500.000 pta.
- 70 m². Erdialdean. Bi logela, sukaldea, egongela eta bainugela. Oso eguzkitsua.
- Bolu auzoan. 96 m². Hiru logela, sukaldea, egongela eta bainugela bi. Oso argitsua. Ondo dago.

**ARETXABALETA**
- 83 m². Hiru logela, egongela, sukaldea eta bainugela. Ganbara. Guztiz berrituta.
- Erdialdean lokala salgai, etxebizitza egiteko baimenarekin. 82 m².

# Iragarki sailkatuak

Eguazten eguerdia arte (12:00) jasotako iragarkiak bakarrik iragarriko ditugu.

**943 76 92 71**

**sailkatuak@goiena.com**

**PARTIKULARREN IRAGARKIAK DOAN JARRIKO DITUGU. GAINERAKOAK, 12 € (+BEZ) ORDAINDU BEHARKO DITUZUE MODULUKO.**

GOIENKARIAk ez du argitaratzen diren iragarkien ondorioz sor daitezkeen operazioen erantzukizunik.

Garbi S.L.
PIPIEN, TERMITEN, ETA ABARREN AURKAKO TRATAMENDU ANTIXILOFAGOAK EGURREAN, ALTZARIETAN, ETA ABARRETAN.
943 33 18 37 (HERNANI)
649 84 67 09 (BERGARA)

ARRASATE
**PERTSONA BAT BEHAR DA TABERNAKO SUKALDEAN LAN EGITEKO. 943 79 74 09**

ARRASATE
**PERTSONA BAT BEHAR DA ILE APAINDEGIAN LAN EGITEKO. 943 77 16 31**

ARRASATE
**NESKA BAT BEHAR DA TABERNAN LAN EGITEKO. 943 79 00 34**

ARETXABALETA
**ZERBITZARIAK ETA SUKALDE LAGUNTZAILEAK BEHAR DIRA ASTEBURUETARAKO. 652 70 82 46**

ARETXABALETA
**TABERNA, HARATEGIA ETA PLATER KONBINATUAK DITUEN LOKALA SALGAI. 943 77 03 08**

BERGARA
**TERRAZADUN TABERNA TRANSFERITZEKO GERTU. HERRI ERDIAN. 639 00 54 62**

TURANDOT
Lagunak gara

Lagun berriak egin eta ondo pasatu nahi duzu?
Afariak, asteburuak, irteerak, eta abar antolatzen ditugu.
Ezkongabe, alargun, dibortziatu eta bananduendako.
Edozein adin, izaera, klase sozial eta joerakoak.

Dei egiguzu 943 34 12 19 telefonora.
Informazio guztia bidaliko dizugu, konpromiso barik.

TURANDOT GIPUZKOA

## 1/ ETXEBIZITZAK

### 101. SALDU

**Aretxabaleta.** Murubide kalean etxebizitza eta garajea salduko nituzke. (Asun). 943 79 07 35.

**Arrasate.** Etxebizitza salgai. Berrituta eta jantzita. Prezio interesgarria. 686 89 98 84.

**Bergara.** Etxebizitza salgai. 96,5 m². Sukaldea, egongela, bi bainugela, hiru logela eta despentsa. 660 52 95 16.

**Bergara.** Etxebizitza salgai. Berrituta. 21.500.000 pezeta. Ricardo. 627 59 72 22.

**Bergara.** Martokon 66 metro koadroko etxebizitza salgai. 21:00etatik 22:00etara deitu edo erantzungailuan utzi mezua. 943 76 30 61.

**Somo (Kantabria).** Etxebizitza salgai. 80 m². Bi logela, sukaldea, egongela, terraza, garajea eta trastelekua. Badiako bista zoragarriak ditu. Nekane. 605 74 26 60.

### 103. ERRENTAN EMAN

**Aretxabaleta.** Etxebizitza ematen da errentan. Hiru logela. Jantzita. Telefonoa: 660 76 06 46.

**Arrasate.** Eskola Politeknikotik bost minutura dagoen etxebizitza ematen da errentan. Hiru logela eta bi komun ditu, dena kanpoaldeari begira. 657 77 92 85.

**Arrasate.** Etxebizitza emango nuke errentan. Ikasleentzako aproposa. Eskola Politeknikotik gertu. Telefonoa: 943 79 21 09.

**Arrasate.** Etxebizitza ematen da errentan. Hiru logela, bi bainugela, egongela, kalefakzioa. 629 42 26 54.

**Arrasate.** Ikasleei alokatzeko moduko etxebizitza daukat erdialdean. Hiru gela, sukalde handia, berogailua, bitrozeramika, igogailua... Iban. 667 74 29 99.

**Benidorm.** Apartamentua ematen da errentan. Aparkalekua eta igerilekua ditu. 637 88 91 25.

**Benidorm.** Hondartzatik gertu dagoen bi logelako apartamentua daukat errentan emateko. 630 41 84 65.

**Bergara.** Bolun etxea ematen dut errentan. Jantzita. 607 41 14 44.

**Chiclana (Cadiz).** Etxebizitza ematen da errentan. Leku ezin hobean. Hondartzatik oso-oso gertu. Gauez deitu. 670 37 71 03.

### 104. ERRENTAN HARTU

**Arrasate.** Ikasle bikote batek etxebizitza hartuko luke errentan Arrasaten edo inguruan. 635 74 14 67.

**Bergara** Logela edo etxea hartuko nuke errentan. 605 78 70 76.

**Etxebizitza** hartuko genuke errentan Arrasaten edo Aretxabaletan. Telefonoa: 615 75 89 15.

**Oñati.** Bikote gazte batek etxebizitza bat alokatu gura du. 652 76 14 37 edo 635 73 06 27.

### 105. ETXEAK OSATU

**Arrasate.** Gela baten bila nabil etxebizitza batean. 680 56 42 17.

**Arrasate.** Ikasleen etxebizitza osatzeko laguna falta da. Eskola Politeknikotik gertu. 639 58 87 40.

**Bergara.** Pertsona bat behar da etxebizitza osatzeko Espoloi kalean. 639 39 18 54.

**Bergara.** Pertsona bat behar da etxebizitza osatzeko. 180 euro (gastuak). Galdetu Iñigorengatik. 669 29 16 77.

## 2/ GARAJEAK

### 203. ERRENTAN EMAN

**Arrasate.** Garaje itxia ematen da errentan Uribarri etorbidean. 943 79 33 48.

**Arrasate.** Herri erdialdean garage itxia ematen dut errentan. 687 39 46 56.

**Garaje** itxia ematen da errentan Arrasateko Usaetxe plazan. 943 79 53 70.

### 204. ERRENTAN HARTU

**Bergara.** Herri erdialdean garaje itxia hartuko nuke errentan. 652 71 58 93.

## 3/ LOKALAK

### 303. ERRENTAN EMAN

**Arrasate.** Lokala ematen da errentan. 45 m2. Telefonoa: 943 79 93 93.

## 4/ LANA

### 401. ESKAINTZAK

**Etxeko** lanak egiteko pertsona bat behar da. Gauez deitu. 943 76 12 80.

### 402. ESKAERAK

**Arrasate.** 35 urteko emakumea gertu edozein lanetan jarduteko, orduka. Ostalaritzan esperientziaduna. 696 86 07 65.

**Arrasate.** Emakume euskalduna gertu etxeko lanak egiteko edo umeak zein pertsona nagusiak zaintzeko. 659 82 75 18.

**Arrasate.** Etxeko lanak egin edo pertsona nagusiak zainduko nituzke. Deitu telefono honetara: 667 92 84 06 edo 645 71 46 11.

**Arrasate.** Mutila gertu tabernan lan egiteko, asteburuetan. Iker. Telefonoa: 626 71 98 16.

**Bergara.** Emakume batek haurrak zaindu edo etxeko lanak egingo lituzke. Telefonoa: 943 76 56 92.

**Bergara.** Etxeak garbitzen eta umeak zaintzen egingo nuke lan. 08:00etatik 12:00etara eta 17:00etatik 20:00etara deitu. Telefonoa: 943 76 25 81.

**Bergara.** Gidabaimen internazionala daukan mutila lan egiteko prest. Telefonoa: 665 70 10 57.

**Bergara.** Mutila gertu margolari edo arotz lan egiteko. 665 70 10 57.

**Debagoiena.** Emakumea lanerako prest. 600 29 97 94.

**Debagoiena.** Esperientziadun emakumea gertu etxebizitzak, tabernak edo dendak garbitzeko. 676 07 68 25 edo 943 77 30 86.

**Debagoiena.** Esperientziadun emakumea gertu tabernetan, dendetan... garbiketa lanak egiteko. Automobila badauka. 667 80 63 97.

**Debagoiena.** Ostalaritzan esperientzia handia duen gizonezkoa gertu asteburuetan lan egiteko, orduka. 686 74 01 95.

## 5/ IRAKASKUNTZA

### 501. JASO

**Alemaneko** eskola partikularrak emango lituzkeen pertsona aleman baten bila nabil. 610 88 85 03.

**Aretxabaleta.** DBHko eskola partikularrak jaso gura nituzke. 943 79 75 75.

**Arrasate.** DBH-4ko ikasle batek eskola partikularrak jaso gura ditu. 615 70 95 04.

**Arrasate.** Marrazketa Linealeko eskola partikularrak jaso gura ditut Arrasaten, goizez. 943 53 36 02.

**Bergara.** Ingeleseko ahozko eskolak jasoko nituzke. 652 71 74 09.

### 502. EMAN

**Aretxabaleta.** Maila guztietako ingeleseko eskolak ematen dira. 943 79 03 83.

**Arrasate.** Irakasletzan diplomadunak laguntza eskolak ematen ditu. 626 26 55 42.

**Arrasate.** Lehen Hezkuntzako eta Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako ikasleei eskola partikularrak ematen dizkiet. Irakasletzan lizentziaduna naiz eta eskarmentua daukat eskolak ematen. 657 72 96 32.

**Bergara.** Irakasletzan diplomaduna eskola partikularrak emateko gertu, Lehen Hezkuntzako eta DBHko ikasleei. Telefonoa: 943 76 33 61 edo 606 54 31 55.

## 6/ MOTORRA

### 601. SALDU

**Citroën** Xsara autoa salgai. Ezaugarriak: 16 balbula, VTR Coupe. Aire girotua, ABS balaztak, lau aire-zaku, beira beltzak. 2001ekoa, 21.000 Km. Bermea du oraindik. 656 73 13 21.

**Ford** Mondeo 2.0 Ghia autoa salgai. ABS, aire girotua... 72.000 Km. Telefonoa: 656 72 62 88.

**Golf** 1600 autoa salgai. SS-AP. Prezioa: 1.500 euro. 655 74 18 01.

**Scooter** Suzuki Address R. motoa salgai. Hiru urte ditu. 2.800 Km. Garajean gordeta egon da. Ondo dago. Prezio interesgarria. Telefonoa: 676 07 68 25 edo 943 77 30 86.

**Seat** Cordoba 1.6 autoa salgai. SS-AV. Oso ondo dago. 98.000 Km. Telefonoa: 686 39 47 02.

**Seat** Toledo CL 1.6i autoa salgai. 1993 urtekoa. Prezio ona. Telefonoa: 652 76 40 31.

**Suzuki** Samurai 4x4 luzea salgai. Defentsa eta gurpil askatzailearekin. 135.000 Km. Ondo dago. 656 71 41 59 edo 615 74 10 67.

**Trialera** salgai. Cota 314, oso-oso berria. Telefonoa: 943 79 15 50.

**Volvo** 460 autoa salgai. 8 urte ditu. Prezio interesgarria. 627 31 14 08.

## 7/ ANIMALIAK

### 701. SALDU

**Shar-pei** arrazako txakurkumeak salgai. Pedigria dute. Cristina. Telefonoa: 945 33 75 81.

## 8/ DENETARIK

### 801. SALDU

**Arrasate.** Ohatzeak (literak) salgai, Flex markakoak. Oso ondo daude. Oso merke. 943 79 57 64.

**Bizikleta** salgai. Zortzi urtetik beherako umeentzat. Ia berria. 60 euro. 680 72 05 52.

**Motozerra** elektrikoa salgai. Black & Decker markakoa. Estreinatu gabea. 100 euro. 943 76 61 05.

**Ordenagailua** salgai, AMD XP 2.0. LG markakoa. 17 pulgadako monitorea. 40 GBko disko gogorra. DVDa eta berriro grabatzekoa eta guzti. Ia berria (sei hilabete). Bi urteko bermea. Telefonoa: 686 22 44 38.

### 806. GALDU

**Bergara.** Irailaren 19an, S-300 markako patinetea laga nuen ahaztuta Fraiskozurin. Eskertuko da. 605 72 38 97.

**Urrezko** eskumuturrekoa galdu nuen Bergaran. "Maialen" eta "2000-10-25" ipintzen du. Telefonoa: 943 76 54 63.

LAN ESKAINTZA

**Goiena Komunikazio Zerbitzuak kooperatibak**

**ADMINISTRARIA**

**behar du aldi baterako lan egiteko.**

Baldintzak:
- Euskaraz jakitea
- Enpresa Zientzietan diplomaduna edo maila bereko tituluduna izatea.
- Kontabilitatea ondo jakitea

Baloratuko da:
- Kontabilitatea eta fakturazioa eramateko aplikazio informatikoak erabiltzen jakitea
- Esperientzia izatea

Interesatuok bidali curriculuma helbide honetara:
Goiena Komunikazio Zerbitzuak
Nafarroa etorbidea 2
20500 ARRASATE
edo posta elektronikoz: admi@goiena.com

Curriculumak aurkezteko azken eguna:
**2003ko urriaren 15a**

Goiena Komunikazio Zerbitzuak

LAN ESKAINTZA

**Goiena Komunikazio Zerbitzuak kooperatibak**

**IRRATIRAKO SOINU TEKNIKARIA**

**behar du aldi baterako lan egiteko.**

Baldintzak:
- Euskaraz jakitea
- Soinu Teknikari tituluduna izatea.

Baloratuko da:
- Irratiko soinu kontrolean esperientzia izatea.
- Irrati kontrolerako ordenagailu programak menperatzea.

Interesatuok bidali curriculuma helbide honetara:
Goiena Komunikazio Zerbitzuak
Nafarroa etorbidea 2
20500 ARRASATE
edo posta elektronikoz: admi@goiena.com

Curriculumak aurkezteko azken eguna:
**2003ko urriaren 15a**

Goiena Komunikazio Zerbitzuak



**Kepa Aranburu de Diego**
Aretxabaleta • Irailaren 27a • 3 Kg.• Gurasoak: **Mari Carmen de Diego** (Aretxabaleta) eta **Txema Aranburu** (Oñati). Argazkian, umea amarekin.



**Iker Jiménez Reguero**
Oñati • Irailaren 28a • 2,800 Kg.• Gurasoak: **Mari Jose Reguero** (Oñati) eta **Antonio Jiménez** (Bergara). Argazkian, umea amaren besoetan.



**Endika Iciar Rastrero**
Aretxabaleta • Irailaren 27a • 3,175 Kg.• Gurasoak: **Jesus Iciar** (Aretxabaleta) eta **Silvia Rastrero** (Donostia). Argazkian, umea amarekin.

**Maider González Blanco**
Aretxabaleta • Irailaren 27a • 3,175 Kg.• Gurasoak: **Jose González** (Aretxabaleta) eta **Susana Blanco** (Aretxabaleta). Argazkian, umea amaren besoetan.



**Maider Moral Lasheras**
Bergara • Irailaren 29a • 2,850 Kg.• Gurasoak: **Manolo Moral** (Bergara) eta **Blanca Lasheras** (Bergara). Argazkian, umea gurasoekin.



**Unai Gorostidi Olea**
Oñati • Irailaren 28a • 2,700 Kg.• Gurasoak: **Mari Loli Olea** (Arrasate) eta **Iñaki Gorostidi** (Oñati). Argazkian, umea amaren besoetan .

## HILDAKOAK

**Jesus Gorostiza Idigoras.** Oñatin, irailaren 28an. 55 urte.

**Mari Carmen Intza Askasibar.** Bergaran, irailaren 27an. 94 urte.

**Patxi Balentziaga Elorburu.** Bergaran, irailaren 29an. 77 urte.

**Gilita Mujika Larrea.** Bergaran, irailaren 30ean. 73 urte.

**Bixente Moñux Angulo.** Bergaran, irailaren 30ean. 90 urte.



**Josune Gómez Larrañaga**
Antzuola • Irailaren 27a • 2,900 Kg.• Gurasoak: **Idoia Larrañaga** (Antzuola) eta **Juan Carlos Gómez** (Antzuola). Argazkian, umea amarekin.



**Olatz Maiztegi Díaz**
Oñati • Irailaren 28a • 3,200 Kg.• Gurasoak: **Espe Díaz** (Oñati) eta **Roberto Maiztegi** (Araotz). Argazkian, Olatz amaren besoetan.



**Jokin Larrinaga Aranburu**
Aretxabaleta • Irailaren 30a • 3,935 Kg.• Gurasoak: **Julen Larrinaga** (Aretxabaleta) eta **Ainhoa Aranburu** (Arrasate). Argazkian, umea gurasoekin.



**Maider Castro Novoa**
Bergara • Irailaren 26a • Gurasoak: **Asun Novoa** (Bergara) eta **Javier Castro** (Bergara). Argazkian, umea Asun eta Javier gurasoekin.

### ESKER ONA

Maria Magdalena
Garmendia Larrañaga



Bergaran hil zen
2003ko irailaren 18an,
85 urte zituela.

*Hileta-elizkizunetara joandakoei
eta samin-agurrak bidali zenizkigutenoi,
eskerrik asko sendikoen izenean.*

### ESKER ONA

Felix
Elorza Gorosabel

*Axun Bengoa Leibarren alarguna*



Bilbon hil zen
2003ko irailaren 24an,
65 urte zituela.

*Hileta-elizkizunetara joandakoei
eta samin-agurrak bidali zenizkigutenoi,
eskerrik asko sendikoen izenean.*

### ESKER ONA

Angel
Moyua Igartua

Oñatin hil zen
2003ko irailaren 9an,
89 urte zituela.

*Hileta-elizkizunetara joandakoei
eta samin-agurrak bidali zenizkigutenoi,
eskerrik asko sendikoen izenean.*

### ESKER ONA

Patxi
Balentziaga Elorburu



Bergaran hil zen
2003ko irailaren 30ean,
77 urte zituela.

*Hileta-elizkizunetara joandakoei
eta samin-agurrak bidali zenizkigutenoi,
eskerrik asko sendikoen izenean.*



**Aderito Prieto**k eta **Maria Victoria Cuesta**k 25 urte bete dituzte ezkonduta. 1978ko irailaren 30ean, hain zuzen ere, ezkondu ziren. Zapatuan ospatu zituzten zilarrezko ezteiak. Zorionak, bikote, eta beste 25 urte bete ezazuela, alaben eta senide guztien partetik!



**Karmentxu Larrañaga** bergararrak eta **Jose Antonio Zeziaga** arrasatearrak 25 urte beteko dituzte ezkonduta datorren martitzenean. 1978ko urriaren 7an, hain zuzen ere, ezkondu ziren Arantzazuko Santutegian. Zorionak, bikote, eta urte askotarako, familiaren partetik!

# Gazte txokoetako ikastaroak

**JUDO IKASTAROA:**
NOIZ: urriaren 15etik abenduaren 10era, asteazkenero
ORDUA: 17: 30etik 19:30era
NORENTZAT: 12 eta 18 urte arteko gazteentzat
TOKIA: Musakolako Gazte Txokoan
Doan

**HIP HOP IKASTAROA:**
NOIZ: urriak 11, 18 eta 25
ORDUA: 17: 00etatik 19:30era
NORENTZAT: 12 eta 18 urte arteko gazteentzat
TOKIA: Musakolako kiroldegian
PREZIOA: 3 euro

**GRAFITI IKASTAROA:**
NOIZ: urriaren 16tik abenduaren 11ra arte, ostegunero
ORDUA: 17: 30etik 19:30era
NORENTZAT: 12 eta 18 urte arteko gazteentzat
TOKIA: Erguingo Gazte Txokoan
PREZIOA: 3 euro

**PLAZA MUGATUAK! URRIAREN 9a, OSTEGUNA, AZKEN EGUNA IZENA EMATEKO!**
IZENA EMATEKO: TXATXILIPURDI ELKARTEAN
ASTELEHENETIK OSTIRALERA ARRATSALDEKO 17:00etatik 19:00etara. TELEFONOA: 943 79 54 46/ 943 77 17 39 ( JASONE)

## ASTEBUKAERAKO EGURALDIA

Oskarbi · Ostarteak · Estalia · Euri txikia · Euria · Zaparradak · Ekaitza · Txingorra · Elurra · Behelainoa

**ZAPATUA, 4**

Lainoak izango ditugu nagusi zapatuan, egun osoan. Tarteka euri txikia egingo du. Tenperaturak pixka bat behera egingo du. Haizea, berriz, mendebaletik ibiliko da.

**Nafarroako Erribera:** ekaitz arriskua.
**Errioxa:** zaparradak.
**Pirinioak:** ekaitz arriskua.

**DOMEKA, 5**

Domeka ere oso egun lainotsua izango dugu. Euri txikia egingo du, baina eguerdi aldera arte, batez ere. Tenperaturak behera egingo du berriro. Haizea ipar ekialdetik ibiliko da.

**Nafarroako Erribera:** lainoak eta ostarteak.
**Errioxa:** ostarteak.
**Pirinioak:** ostarteak.

ASTEKO BATEZ BESTEKO TENPERATURA

**18,7º C**

ILARGIAREN ALDIAK: URRIA

| ilgora | ilbete | ilbehera | ilberri |
|---|---|---|---|
| 1 | 5 | 10 | 18 |

EGUZKIA: URRIAREN 5a

Sortu 08:09 · Gorde 19:43

## URKULUKO URTEGIA

**Azkeneko asteotan zaparradaren batzuk izan ditugun arren, nabarmen egin du behera Urkuluko urtegiko ur mailak. Momentu honetan, %63,41 da ur maila.**

**% 63,4**

## BEHARREZKO TELEFONOAK

**((112)) SOS DEIAK**

**OSASUNA / LARRIALDIAK**

| | |
|---|---|
| OSAKIDETZA (Larrial.) | 943 46 11 11 |
| DYA (Orokorra) | 943 46 46 22 |
| DYA ( Antzuola) | 943 78 71 57 |
| Gurutze Gorria | 943 22 22 22 |
| Suhiltzaileak | 943 78 28 00 |
| Ertzaintza | |
| Arrasate | 943 79 71 99 |
| Bergara | 943 53 47 20 |
| Osasun Etxeak | |
| Arrasateko Ospital. | 943 03 53 00 |
| Antzuola | 943 76 62 23 |
| Aramaio | 945 44 53 40 |
| Aretxabaleta | 943 71 19 59 |
| Bergara | 943 03 54 00 |
| Elgeta | 943 78 90 27 |
| Eskoriatza | 943 71 44 52 |
| Leintz Gatzaga | 943 71 47 46 |
| Oñati | 943 03 54 30 |
| Hies Ekimena | 943 79 26 99 |
| Udaltzaingoak | |
| Antzuola | 943 76 62 46 |
| Aramaio | 945 44 50 16 |
| Arrasate | 943 79 14 39 |
| Aretxabaleta | 943 71 18 63 |
| Bergara | 943 77 91 06 |
| Eskoriatza | 943 71 44 07 |
| Leintz Gatzaga | 943 71 47 46 |
| Oñati | 943 78 04 11 |

**GARRAIOAK**

| | |
|---|---|
| Eusko Trenbideak | 943 45 01 31 |
| PESA | 902 10 12 10 |
| Taxiak | |
| Arrasate | 943 79 12 22 |
| Aramaio | 945 44 50 33 |
| Aretxabaleta | 943 79 22 33 |
| Bergara | 943 79 12 22 |
| Eskoriatza | 943 71 40 59 |
| Oñati | 943 78 03 65 |
| RENFE | 943 28 35 99 |

**DEBAGOIENA**

| | |
|---|---|
| Mankomunitatea | 943 79 33 99 |
| Hiltegia (Zubillaga) | 943 78 21 93 |
| Mendi nekazaritza elk. | 943 76 25 47 |
| Nekazaritza Ganbera | 943 76 10 15 |
| Zerga Bulegoa | 943 76 58 63 |
| Euskara Taldeak | |
| Debagune | 943 77 12 28 |
| AED / Arrasate | 943 77 12 28 |
| Loramendi / Aretx. | 943 77 09 70 |
| Jardun / Bergara | 943 76 08 19 |
| Axtroki / Eskoriatza | 943 71 54 34 |
| Laixan / Oñati | 943 71 63 11 |
| Hondakindegi Alternatiboak | |
| Arrasate | 943 77 11 43 |
| Bergara | 945 76 44 42 |
| Oñati | 943 78 36 67 |
| Kiroldegiak | |
| Aramaio | 945 44 53 35 |
| Arrasate | 943 77 16 77 |
| Aretxabaleta | 943 71 26 28 |
| Bergara | 943 76 56 41 |
| Elgeta | 943 76 82 84 |
| Eskoriatza | 943 71 53 28 |
| Oñati | 943 71 63 75 |
| Kultura Etxeak | |
| Antzuola | 943 76 60 65 |
| Arrasate | 943 77 01 05 |
| Aretxabaleta | 943 71 10 27 |
| Bergara | 943 77 91 58 |
| Eskoriatza | 943 71 46 88 |
| Leintz Gatzaga | 943 71 47 46 |
| Oñati | 943 78 03 53 |
| Udalak | |
| Antzuola | 943 76 62 46 |
| Aramaio | 945 44 50 16 |
| Arrasate | 943 79 09 00 |
| Aretxabaleta | 943 71 18 62 |
| Bergara | 943 77 91 00 |
| Elgeta | 943 76 80 22 |
| Eskoriatza | 943 71 44 07 |
| Leintz Gatzaga | 943 71 47 46 |
| Oñati | 943 78 04 11 |

## EUSKARAZKO HEDABIDEAK

| | | |
|---|---|---|
| GOITB | 943 71 23 96 | goitb@ goiena.com |
| Goienkaria | 943 76 92 71 | goienkaria@goiena.com |
| Arrasate Press | 943 71 25 11 | arrasatepress@goiena.com |
| Berrigara | 943 76 03 97 | berrigara@goiena.com |
| Aretxagazeta | 943 79 86 21 | aretxagazeta@goiena.com |
| Goibekokale | 943 76 92 71 | goibekokale@goiena.com |
| Kontuola | 943 76 03 97 | kontuola@goiena.com |
| Txirritola | 943 71 25 11 | txirritola@goiena.com |
| Ze barri? | 943 79 86 21 | zebarri@goiena.com |
| Kontzejupetik | 943 78 26 17 | kontzejupetik@oinati.net |
| Putz | 943 79 42 30 | putz@euskalnet.net |
| Arrasate Irratia | 943 71 17 31 | irratia@goiena.com |
| Oñati Irratia | 943 78 26 17 | irratia@oinati.net |
| Sustatu.com | 943 76 92 71 | sustatu@sustatu.com |

*Erakunde hauen laguntzaz*

Gipuzkoako Foru Aldundia
Eusko Jaurlaritza

**Antzuolako Udala**
**Aramaioko Udala**
**Aretxabaletako Udala**
**Arrasateko Udala**
**Bergarako Udala**
**Elgetako Udala**
**Eskoriatzako Udala**
**Leintz Gatzagako Udala**
**Oñatiko Udala**

## BIZI-POZA/IRAILA



GOIENKARIA
**Etxebizitzaren merkatuan babes ofizialekoek pisu handiagoa izan dezaten administrazioak neurriak hartzea eskatu dute.**

# Hamar familiatik seik ez dauka etxebizitza berria erosteko dirurik

*Horregatik, babes ofizialeko etxe gehiago eraikitzea eskatzen dute*

GOIENKARIA

**Encuentro Fundazioak egindako ikerketa baten arabera, Espainiako familien %60,7k ezin diete aurre egin etxe berria erosteko gastuei.**

Ondorio horretara heldu da fundazio hori, Espainiako familiek irabazten dutena eta hipotekari aurre egiteko hilean ordaindu behar dutena kontuan hartuta. 1999an, etxe berria erosteko dirurik ez zeukaten familiak %49,2 ziren Espainian. Beraz, handitu egin da etxe berria erosteko arazoak dituztenen batez bestekoa. Baina zergatik egin du gora batez besteko horrek azken urteotan? Adituek diote etxebizitzaren garestitzea dela arrazoia, ze hipoteken interes tipoak behera egin du azken urteotan. Esan beharra dago azken urtean %17,5 garestitu dela etxebizitzaren prezioa, eta 1999tik 2002ra %40,4 garestitu zela.

Eta zelan egin du ikerketa Encuentro Fundazioak? Bada, kalkuluak ateratzeko, 125.000 euroko 75 metro koadroko etxebizitza hartu du eredu. Etxe hori erosteko 100.000 euroko mailegua eskatu beharko genuke. Kalkuluen arabera, mailegu horri aurre egiteko hilean 580 euro ordaindu beharko genizkioke bankuari edo aurrezki kutxari. Mailegua 20 urtera izango litzateke eta interes tipoa, berriz, euribora gehi puntu erdi.

Hortaz, familia batek 1.160 euroko sarrerak izan beharko lituzke hilero, eta horren erdia maileguari aurre egiteko erabili. Bada, ikerketak dio Espainiako familien %60,7k ez daukatela horrenbesteko diru sarrerarik.

Arazo horri aurre egiteko Encuentro Fundazioak eskatzen du beharrezkoa dela administrazio publikoak lehenbailehen har ditzala neurriak, babes ofizialeko etxeen eskaintza handitzeko.

NUTRIZIOA

### Dieta egiteak bizitza-luzera areagotzen duela frogatu dute

Osasuntsu bizi eta ganoraz elikatzea beharrezkoa dela entzun izan dugu askotan. Dieta egiteak bizitza-luzera areagotu dezakeela ere entzun izan dugu: neurrian jateagatik –betiere premiak asez– gehiago bizi gaitezkeela.

Bada, *Science* aldizkariak argitaratutako ikerketa batek frogatu egin du hori horrela dela, eta, behar ditugun kaloriak baino gehiago go hartzen ez baditugu, bizitza-luzera areagotu egingo dugula. Eta gainera, frogatu du ez dela inporta noiz hasten garen dieta egiten. Beraz, inoiz ez da berandu dieta bati ekiteko. Hori bai, urte askotan dieta egin arren, dieta hautsi eta berriro ere behar duguna baino gehiago jaten hasten bagara, alferrik da egindako guztia.

OSASUNA

### Haurdun daudenen %68k ez dute nahiko kaltzio hartzen

Madrilgo Unibertsitate Autonomoak egindako ikerketa baten arabera, haurdun dauden hamar emakumetik zazpik hartzen du gomendatzen dutena baino kaltzio gutxiago. Eta, jakina, horrek ondorioak ditu, emakumearen osasunean ez ezik, haurrarenean ere bai. Haurdunaldian gomendatzen dute egunean 1.200 miligramo kaltzio hartzea.

Hala ere, kantitate hori haurdun dauden emakumeen %30ek bakarrik hartzen dute. Haurdunaldian nahiko kaltzio hartzea beharrezkoa da. Zergatik? Haurraren hipertentsioa ekiditeko eta haurrak nahiko pisu izateko. Hortaz, ikerketak gomendatzen du emakumeek gehigarriak hartzea haurdun daudenean, nahiko kaltzio har dezaten.

**Eroski Fundazioaren laguntzarekin**

## HITZGEZIDUNAK

Luma



* Izena
Elaia
Frantziako herritar
Barazki hostotsua
Ibilgailu bat herrestan eroan
Norentzat atzizkia
Torioa
* Deitura
Hormako irekigune
Buru-estalki
Idor bihurtu
Titanioa
Nekagarri
Neodimioa
Lohi, lokatz
Kaia
Garoa, iratzea
Izaera on
Galdera
Grina bizi, irrika
Fruituak bildu
Beira
50
Gertatu
Urrea
Lehen bi letrak
... Duhalde, abeslaria
Su, lama
Garen hauek
Modu atzizkia
Interjekzioa
Euskal fonema
Emakume izena
Lur-zati mugatu
Dirua ordaintzeko betebehar

## BILABILA7







## UMOREGIROAN/ Pedro Zelaia

Pedro Zelaiak argitaratutako txiste bilduma-liburutik hartuta.

**BIARRERA JUAN NAI EZ**

Plaentxia inguruan bizi zan Urlixa. Itxura danez, biarrerako gogo gitxikua. Edozer aitzeki artu eta etxian geratzen zan edo lagun artian jokuan. Beiñ etxekuak esan zetsen:
- I, txotxo, biarrera noiz juan bihar dok?
Eta Urlixak:
- Baiñan zuek eztakizue ni denpora gitxixan bizitzeko jaixo naizela eta betirako iltzeko, eta biarrera bialtzea nai dozue?
Beste beiñ, horrela "oporretan" zegoala, bere tallarreko kontramaixuakin ikusi da, eta onek:
- I, baiña, noiz ator biarrera?
Eta Urlixak:
- Ara, zuek eiñ bihar dozuena dok tallar barruan doazenak jubilau, eta kanpuan gagozenei bakian itxi.
Andik apur batera, ikusi da kalian ugazabarekin.
- Noiz ator biarrera?
Urlixak:
- Etxuek esaten ba gure tallarrak hainbeste millioi balio ditxuala? Eiñ zeinkien gauzarik onena auxe dok: orrek tallarreko danen artian partidu, eta danok ondo biziko gaitxuk.
Azken batean, gure Urlixari "gaixo luzearen" oporrak emon zetsezen. Etzegoan beste erremedixorik.

## EZETZASMATU!

Estepan Plazaola




MANUEL URTUBI

### Zenbat bizilagun galdu ditu Debagoienak 1981etik 2002ra?

Debagoienerako proiektu berriek bertako bizilagun kopurua nabarmen handitzea aurreikusten dute. Baina azken urteetako joera ez da biztanleak ugaritzekoa, guztiz kontrakoa baino. Debagoienak, Aramaio ere kontatuta, biztanleak galdu egin ditu azken hogei urteetan. Baina zenbat? Asmatuko ote zenuke?

- 4.887.
- 2.312.
- 6.354.
- 8.213.

**Erantzun zuzena:** 4.887.

## SOLUZIOAK






| | | | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|
| | | | • | A | • | F | • |
| | | | E | N | A | R | A |
| | | | ■ | T | Z | A | T |
| • | M | • | T | X | A | N | O |
| L | E | I | H | O | ■ | T | I |
| • | N | D | ■ | N | A | S | A |
| I | D | O | I | ■ | S | E | N |
| • | I | R | R | I | T | S | ■ |
| U | Z | T | A | T | U | ■ | L |
| • | A | U | ■ | A | N | J | E |
| A | B | ■ | G | U | ■ | A | I |
| • | A | R | A | N | T | Z | A |
| A | L | O | R | ■ | Z | O | R |

## ASTEKOHOROSKOPOA

Gipuzkoako Astrologi Elkartea

**ARIES**
*martxoak 21-apirilak 21*

Asebetetasunik eza ingurukoekin daukazun hartu-emanean, ez dituzte-eta zure kezkak ulertzen. Horren ondorioz, hitzaldi eta konferentzietara joango zara, ulertuko zaituen norbaiten bila.

**TAURUS**
*apirilak 22-maiatzak 21*

Zure helburuak bete nahi badituzu, gogor lan egin beharko duzu, eta jendea konbentzitzeko daukazun gaitasuna erabili beharko duzu.

**GEMINI**
*maiatzak 22-ekainak 21*

Lanean egin duzun esfortzuak fruituak emango ditu. Bestalde, seme-alabekin arazoak izango dituzu, eta ohi baino luzeago egon beharko duzu haiekin.

**CANCER**
*ekainak 22-uztailak 22*

Gaizki-ulertzeak lanean edo eskolan; ondorioz, arazoak izango dituzu lankideekin edo eskolakideekin. Bestalde, atzerrira bidaiaren bat egiteko aukera, lanarengatik edo ikasketengatik. Argi ibili zer jaten duzun, urdaila delikatua izango duzu-eta.

**LEO**
*uztailak 23-abuztuak 22*

Bakarrik egon gura izango duzu, zure bizitzako hainbat alderdi aldatzeko asmoz. Bestalde, argi ibili egingo dizkizuten lan proposamenekin, engainatu egin zaitzakete-eta.

**VIRGO**
*abuztuak 23-irailak 22*

Bidaia bat egingo duzu, eta etorkizunean zure bizitzan oso garrantzitsu izango den jendea ezagutuko duzu. Bikotekiderik ez baduzu, lasai, laster neska/mutil atsegin bat ezagutuko duzu-eta.

**LIBRA**
*irailak 23-urriak 22*

Oso sentibera egongo zara, eta edozergatik haserretuko zara; izan ere, arazo txikiena ere handi bihurtuko duzu. Eztabaida inozoak izango dituzu lagunekin eta familiakoekin. Neurtu zer esaten duzun.

**SCORPIUS**
*urriak 23-azaroak 22*

Inguruko emakumeei esker, horrenbeste espero zenuen proiektua aurrera atera ahal izango duzu. Bestalde, oso aste positiboa amodio kontuei dagokienez.

**SAGITTARIUS**
*azaroak 23-abenduak 21*

Oraingo astean aspertu egingo zara eta oso bakarti sentituko zara. Horrez gain, lanean guztiz blokeatuta egongo zara. Ez estutu, eta ahalegin zaitez beste alternatiba batzuk topatzen.

**CAPRICORNUS**
*abenduak 22-urtarrilak 20*

Oso hotz jokatuko duzu ingurukoekin, eta bikotekidea haserretu egingo da zure jokaera hori dela eta. Bestalde, oso aste aproposa da kontratuak sinatzeko eta negoziazioak egiteko.

**AQUARIUS**
*urtarrilak 21-otsailak 20*

Zure inguruan gertatuko den zerbaitek nahiko argi zenituen gauza batzuk berriro planteatzea eragingo du. Bestalde, dirua xahutu eta xahutu ibiliko zara, eta arazoak izango dituzu hil bukaerara ailegatzeko.

**PISCIS**
*otsailak 21-martxoak 20*

Arazoak bikotekidearekin; izan ere, ezin duzu jasan zurekin duen jarrera hotza. Bikotekiderik ez baduzu, neska/mutil bat ezagutuko duzu eta harreman polita hasi.

GIPUZKOAKO
ASTROLOGI ELKARTEA



## 'Jaiak Oñati 2003'

ASTELEHENA 6 / **14:30**

### Oñatiko plazan grabatutako albistegi berezia GOITBn

Jaiak ospatuko dituzte oraingo asteburuan Oñatin. Astelehenean oñatiarrak mozorrotu egingo dira eta Goiena Telebistak albistegia grabatuko du Herriko Plazan. 14:30ean eta 20:00etan eskainiko dugu albistegia.



## 'Jaiak Maritxu Kajoi 2003'

MARTITZENA 7 / **20:30**

### Maritxu Kajoi gaueko giro politena GOITBn ikusgai

Maritxu Kajoi gauean Goiena Telebistako kameralari eta kazetariak kalean eta tabernetan ibiliko dira. Martitzenean izango duzue aukera Maritxu Kajoi eguneko giroa ikusteko: ile apaindegietakoa, jatetxeetakoa, tabernetakoa...



## 'Harmailatik' ez da izango

ASTELEHENA 6 / **20:30**

### 'Jaiak Oñati 2003' saioak ordezkatuko du 'Harmailatik'

Jaiak direla eta, astelehenean, hilaren 6an, ez da *Harmailatik* saioa izango. Oñatiko kaleetako giroa izango da ikusgai egun horretan Goiena Telebistan. Kirolak urriaren 13an itzuliko dira GOITB-ko programaziora.



## 'Astebete'

EGUBAKOITZA 3/ **20:30**

### Ikasturteko lehenengo saioan txakolina nagusi

Goiatz Arana kazetariak zuzentzen eta aurkezten duen saioak ikasturte berriari ekingo dio gaur. Lehenengo saioan ibarreko txakolina izango da protagonista. Jabier Arregi txakolin egileari elkarrizketa egingo dio Goiatz Aranak.

## TELEBERRIAK

### Gidoigintza ikastaroa urriaren 7tik aurrera Pausokak antolatuta

Urriaren 7an hasi eta azaroaren 13ra arte iraungo du Pausokak antolatutako gidoigintza ikastaroak. Hiru orduko hamabi saio izango dira, guztira, martitzen eta eguen arratsaldeetan. Gidoiaren oinarrizko kontzeptuak eta lanabesak aztertuko dituzte ikastaro horretan; film eta telesaio eredugarrietan aurkituko dute ikasbidea ikasleek. Irakasleak ere ez dira nolanahikoak izango: Joxean Muñoz eta Ritxi Lizartza, hain zuzen ere. Lehenengoa *Karramarroen uhartea* animaziozko luzemetraiaren gidoilaria da; Lizartza, berriz, *Goenkale* telesaileko gidoilaria eta euskara arduradunetako bat.

### Beste 'reality show' bat hasi da Euskal Telebistan

Eguaztenean beste *reality show* bat hasi zen, kasu honetan, Euskal Telebistako bigarren katean. *El Topo* izeneko lehiaketa horren berezitasuna da parte hartuko duten 14 lehiakideen artean bat satorra dela, hau da, zuzendaritzak zelatari lanean jarri duen pertsona bat. Lehiaketaren gakoa izango da satorra zein den asmatzea. Saio ibiltaria izango da, eta ETBko lehen kateko *Basetxea* bezala, paraxut jauzialdiekin hasiko da saioa. Arantxa Sinobas izango da lehiaketaren aurkezlea. Euskal Telebistak momentu honetan duen bigarren *reality show*-a da, eta laster jarriko dute abian hirugarrena: *Barnetegia*, hain zuzen ere.

## ASTEKOPROGRAMAZIOA/ Urriaren 3tik urriaren 9ra

| EGUBAKOITZA 3 | ZAPATUA 4 | DOMEKA 5 | ASTELEHENA 6 | MARTITZENA 7 | EGUAZTENA 8 | EGUENA 9 |
|---|---|---|---|---|---|---|
| 13:30 **Gatza eta berakatza**<br>14:00 **Sarrera doan**<br>14:30 **Berriak**<br>15:00 **Iluntzean**<br>15:30 **Berriak**<br>16:00 **Gatza eta berakatza**<br>16:30 **Emisio amaiera**<br>19:30 **Emisio hasiera**<br>19:45 **Gatza eta berakatza**<br>20:00 **Berriak**<br>20:30 **Astebete**<br>21:00 **Gaurkoak**<br>21:15 **Soinuz blai**<br>21:45 **Gatza eta berakatza**<br>22:00 **Berriak**<br>22:30 **Astebete**<br>23:00 **Gaurkoak**<br>23:15 **Soinuz blai**<br>23:45 **Emisio amaiera** | 14:00 **Harmailatik**<br>14:30 **Jaiak 2003**<br>15:30 **Iluntzean**<br>16:00 **Sarrera doan**<br>16:30 **Mandio**<br>17:00 **Astebete** | 14:00 **Harmailatik**<br>14:30 **Jaiak 2003**<br>15:30 **Iluntzean**<br>16:00 **Sarrera doan**<br>16:30 **Mandio**<br>17:00 **Astebete** | 13:30 **Gatza eta berakatza**<br>14:00 **Astebete**<br>14:30 **Berriak**<br>15:00 **Soinuz blai**<br>15:30 **Berriak**<br>16:00 **Gatza eta berakatza**<br>16:30 **Emisio amaiera**<br>19:30 **Emisio hasiera**<br>19:45 **Gatza eta berakatza**<br>20:00 **Berriak Oñati**<br>20:45 **Jaiak Oñati 2003**<br>21:45 **Mikrosaioak**<br>22:00 **Berriak Oñati**<br>22:45 **Jaiak Oñati 2003**<br>23:45 **Mikrosaioak**<br>24:00 **Emisio amaiera** | 13:30 **Gatza eta berakatza**<br>14:00 **Jaiak Oñati 2003**<br>14:30 **Berriak**<br>15:00 **Jaiak Oñati 2003**<br>15:30 **Berriak**<br>16:00 **Gatza eta berakatza**<br>16:15 **Emisio amaiera**<br>19:30 **Emisio hasiera**<br>19:45 **Gatza eta berakatza**<br>20:00 **Berriak**<br>20:30 **Jaiak Maritxu Kajoi 2003**<br>21:00 **Gaurkoak**<br>21:15 **Soinuz blai**<br>21:45 **Gatza eta berakatza**<br>22:00 **Berriak**<br>22:30 **Jaiak Maritxu Kajoi 2003**<br>23:00 **Gaurkoak**<br>23:15 **Soinuz blai** | 13:30 **Gatza eta berakatza**<br>14:00 **Jaiak Maritxu Kajoi 2003**<br>14:30 **Berriak**<br>15:00 **Jaiak Maritxu Kajoi 2003**<br>16:00 **Berriak**<br>16:15 **Gatza eta berakatza**<br>16:30 **Emisio amaiera**<br>19:30 **Emisio hasiera**<br>19:45 **Gatza eta berakatza**<br>20:00 **Berriak**<br>20:30 **Jaiak 2003**<br>21:00 **Gaurkoak**<br>21:15 **Jaiak 2003**<br>21:45 **Gatza eta berakatza**<br>22:00 **Berriak**<br>22:30 **Jaiak 2003**<br>23:00 **Gaurkoak**<br>23:15 **Jaiak 2003**<br>23:45 **Emisio amaiera** | 13:30 **Gatza eta berakatza**<br>14:00 **Jaiak 2003**<br>14:30 **Berriak**<br>15:00 **Jaiak 2003**<br>15:30 **Berriak**<br>16:00 **Gatza eta berakatza**<br>16:30 **Emisio amaiera**<br>19:30 **Emisio hasiera**<br>19:45 **Gatza eta berakatza**<br>20:00 **Berriak**<br>20:30 **Sarrera doan**<br>21:00 **Gaurkoak**<br>21:15 **Iluntzean**<br>21:45 **Gatza eta berakatza**<br>22:00 **Berriak**<br>22:30 **Sarrera doan**<br>23:00 **Gaurkoak**<br>23:15 **Iluntzean**<br>23:45 **Emisio amaiera** |
| 20:30<br>**Astebete** | 16:30<br>**Mandio** | 15:30<br>**Iluntzean** | 20:00<br>**Berriak Oñati** | 20:30<br>**Jaiak Maritxu Kajoi** | 14:30<br>**Berriak** | 20:30<br>**Sarrera doan** |

**GOIENA TELEBISTA** / Posta elektronikoa: **goitb@goiena.com** • Telefonoa: **943 71 23 95**

## KAMERAAURREAN



*"Askotariko egitaraua prestatu dugu. 9 kilometroko ibilbidean denetarik egiteko eta ikusteko aukera izango dute Lazkaora gerturatzen direnek".*

**Igor Elortza** / Kilometroak 2003ko antolatzailea
"BERRIAK" (2003-10-01)



*"Ezin dugu horrela jarraitu. Lehenbailehen konponbidea aurkitu behar diogu greba egoerari. Zuzendaritzak jarrera aldatu beharra dauka".*

**Jesus Desantos** / ELAko ordezkaria Torunsa SAn
"BERRIAK" (2003-10-02)

## TELEBEGI/ Maria Agirre

# *Medem eta esperantza*

Egun batzuk pasa dira Medem-en azken dokumentala aurkeztu zela, baina estreinaldiak sortarazi zidan sentipenaren berri ematera noa, esperantza sortarazi baitzidan. Gutxitan gertatzen da albistegia ikusi eta halako sentipenarekin geratzea, baina Euskal Telebistak estreinaldiari emandako enfokeak itxaropenari atea zabaltzen ziola iruditu zitzaidan, eta halakoak behar ditugu noizean behin.

Alderdi desberdinetako politikariak estreinaldian, beno, betikoak falta ziren, baina azken finean, modu batera edo bestera, han zeuden guztiek aitortu zuten gatazka honetan pertsona asko ari direla sufritzen. Dokumental batek hori lortzea gauza handia da. Horregatik, politikariek gehiagotan joan beharko lukete zinemara, eta telebistako albistegiek gehiagotan eman beharko lituzkete halako ikuspegiak, esperantza sortarazten duten albisteak.



# Haur, emakume eta haurdunaldirako arropak



UNITED COLORS OF BENETTON.

Maalako Errabala, 13 • ARRASATE • 943 79 50 78

ZAPATU ARRATSALDEETAN
ETA ASTELEHEN GOIZETAN
**ZABALIK**







**RENAULT Kontzesionarioa**

## AUTOBERRI

San Andres auzoa, 8 · Tel.: 943 712 472
ARRASATE

**Goienkaria** ©
DEBAGOIENEKO ASTEKARIA

**Argitaratzailea:** Goiena Komunikazio Zerbitzuak Kooperatiba Elkartea • Nafarroa etorbidea 2 • 20500 Arrasate
**Egoitza nagusia:** **BERGARA** 20570 Barrenkalea 33 • 132 posta-kutxatila • Tel.: 943 76 92 71 • Faxa: 943 76 29 77 • Posta-e: *goienkaria@goiena.com*
**Ordezkaritzak:** **Arrasate** 20500 Otalora Lizentziaduna 31 • Tel.: 943 71 25 11 • Faxa: 943 71 23 89 • Posta-e: *arrasatepress@goiena.com*
**Aretxabaleta** 20550 Durana 11 • 151 posta-kutxatila • Tel.: 943 79 86 21 • Faxa: 943 77 18 54 • Posta-e: *aretxagazeta@goiena.com*
**Publizitatea:** **Arrasate** 20500 Nafarroa etorbidea 2 • Tel.: 943 79 21 00 • Faxa: 943 79 22 93 • Posta-e: *publi@goiena.com*
**Lege Gordailua:** NA-3329/2000 • **ISSN:** 1577-1210 • **Tirada:** 21.500 ale.
**HARPIDETZA:** **943 79 21 00** • Posta-e: *harpidetza@goiena.com*

Goiena Komunikazio Zerbitzuak

EGUBAKOITZA, 2003ko urriaren 3a


*Atzeskua*

LEIRE KORTABARRIA

# Manuel Vieites/ Aloña Mendiko jarraitzailea

**Oñatiko Aloña Mendi taldeak duen jarraitzaile sutsuenetarikoa izango zara. Zelan piztu zitzaizun zaletasun hori?**

1987a ezkero bizi naiz hemen. Txikitatik izan naiz futbolzalea: jaioterrian, Vigon, Celta, Gran Peña eta Turista taldeak jarraitzen nituen. Teodoro Salgado adiskidearen eskutik ezagutu nuen Aloña Mendi, eta elkarrekin joaten ginen partiduetara; 1995ean, Teodoro zendu zen, eta ordutik, neu bakarrik joaten naiz.

**Baina esan digute Aloña eta zu beti ez zaretela hain ondo konpondu..**

Nik taldea ezagutu nuenean, preferente mailan zegoen, eta lehen erregionalera jaitsi zen. Orduan, tabernetan eskela bat jarri nuen nik. Zuzendaritzari ez zion grazia handirik egin, baina gero, mailaz igo zenean, urdaiazpikoa eta ardo botila kaxa opari egin nizkien eta lagun egin ginen. Familia bat bezala gara.

**Partidu guztietara joaten zara. Inoiz hutsik egin duzu?**

Gabonetako oporretan bakarrik galtzen ditut partiduak. Futbol partiduen egutegia ere alboan eramaten dut, Aloñaren hurrengo partiduaren berri jakiteko. Euria zein trumoia egin, hantxe egon izan naiz.

**Eta hori eskertzeko omenaldia egin zizun Aloña Mendi elkarteak.**

Bai, hala da. Bazekiten taldearen bandera nahi nuela, eta opari egin zidaten! Horrez gain, jakina, Aloña Mendiko intsignia daukat, baita jokatu duen talde guztiena ere. Izan ere, leku askotan egon izan naiz Aloñarekin: Santurtzin, Balmasedan, Getxon, Zamudion, Lesakan…

**Aloña Mendiko beste jarraitzaileak zu bezain gogotsuak eta leialak dira?**

Aloña Mendik oso-oso zale onak ditu, bai. Joan izan garen zelai guztietan esan digute "primerako jarraitzaileak" garela. Leku guztietan Aloña Mendiko jarraitzaileok gara gehiengoa. Asko animatzen dugu, Aloñaren ereserkia abestu… Une onak eta txarrak pasatzen ditugu: adibidez, hirugarren mailara igo zenean sekulako festa bizi izan genuen. Galtzen duenean, jakina, mutur-beltz ibiltzen gara…

**Zu izatez Vigokoa zara. Celta taldearen jarraitzaile ere izango zara, bada?**

Bai, bai, baina ligako lehen mailan dauden Galiziako talde guztiak berdin jarraitzen eta animatzen ditut, eta guztiengatik pozten naiz, irabazten dutenean.

**Laster agur esango diozu Oñatiri, Vigora itzultzeko asmotan zabiltzalako…**

Bai. Laster itzuliko naiz jaioterrira, berriro han bizi izatera. Baina ez ditut Oñati eta Aloña inoiz ahaztuko. Aloñak maiatzaren 30ean bukatuko du denboraldia, eta horren zain nago, gero Galiziara joateko.



**"Galiziara noa berriro bizi izatera, baina Aloñak denboraldia bukatu arte zain nago, maiatz bukaerara arte"**

**"Aloña Mendi beti jarraitu izan dudala saritzeko omenaldia egin zidan klubak"**

**"Gabonetan izan ezik, taldearen partidu guzti-guztietara joan naiz 1987a ezkero"**

► *Vigo / 59 urte / Futbolzalea*

## PIPERRAUTSA

### *Enrike*

Ez dut aurrez aurre ezagutzen Enrike Letona. Zuetako edonork bezala dakit hamasei urte egin dituela kartzelan. Eta zigor osoa bete ondoren irten zela handik, aurtengo maiatzean. Lagun komunak ditugu, eta haien pozarekin poztu nintzen neu ere.

Baita samindu ere, uztailean berriro atxilotu zutenean.

Ez zegoen delitu berririk. Lehen epaitutako epean delituren bat gehiago egon zitekeela eman zuten arrazoi. Eta adituek diote arrazoi honek ez duela balio. Bere garaian, Enrikeri ezarri zioten gehienezko zigorra, 1979-1983 tartean leporatzen zizkioten delituengatik. Epe berean delitu gehiago izan balitu ere, ezin zioten jarri zigor luzeagorik, legediak ez zuen onartuko. Horregatik, orain ezin zaio zigor berririk jarri 1981eko sumario batengatik. Epe horri dagokion gehienezko zigorra osorik bete du, ez du inongo zorrik. Eta, hala ere, atxilotu egin zuten uztailean eta berdin jarraitzen du bi hilabete geroago.

Ez dut Enrike ezagutzen, ezta bere ideia politikoak ere. Ezin jakin zenbateraino bat gatozen. Baina ez da hori kontua. Kontua da Enrikeren legezko eskubide bat urratzen ari direla legelariak. Eta hori gertatzen denean, denok geratzen gara babesik gabe. Denoi eman digute ostikada Enrikeren ipurdian. Horregatik, denoi dagokigu egoerari aurre egitea, legea bete dadila aldarrikatzea.

Egin dezagun lan Enrike aska dezaten.

MIKEL IRIZAR


iKER
SUKALDE ETA BAINU ALTZARIAK

SUKALDE ERAKUSKETA
Udala Plaza z/g • Tel.: 943 79 00 43
BAINU ERAKUSKETA
Zarugalde 52 • Tel.: 943 79 99 42
ARRASATE

FAGOR

